



Gogoeta

IKASTETXEEN BIRTUALIZAZIO EREDUA

Aukera



kristau•eskola

Sarrera

“Hezi, hazi, berritzen segi” goiburuak nagusitu du KRISTAU ESKOLAko 2015-2016 ikasturtearen hasiera.

KRISTAU ESKOLA osatzen dugun ikastetxeetako hezkuntza- eta pedagogia-jarduerak berritzeko ahalegin iraunkorrean kokatzen da esku artean duzun argitalpena: Ikastetxeetako Birtualizazio Eredua.

Gai horrekin eman diogu hasiera Pedagogia izeneko atalari Gogoeta bildumaren barruan. Bildumaren xedea da hezkuntza- eta pedagogia-jardueran garatzen ari garen ekimenak aurkeztea; izan ere, ikasleak eta familiak gure ekintza hezitzailearen erdigunean daudela azpimarratu nahi dugu berriro ere.

IKTen trena galdu nahi ez duten ikastetxe guztientzako proposamen irekia da, Hezkuntza Komunitateko eskariei erantzun diezaieten eta norabide berean doazen kideekin ibilbidea parteka dezaten.

Orri hauetan aurkituko duzun Ikastetxeetako Birtualizazio Eredua errealista, koherentea, adostua, eta ikastetxeetatik eta ikastetxeentzako sortua da. Denon ekarpenei esker, hazten jarraituko duen egitasmoa da. Ez dezagun sare-lanaren helburua galdu, indarra emateaz gain, denok garrantzitsuak garen proiektu honekin ezagutzen baikaituzte.

Espero dugu orri hauetan aurkezten dizugun Ikastetxeetako Birtualizazio Eredua Hezkuntza-proiektu Pastoral ezberdinek onartzeko aukera izatea, eta, horrela, eredia ikastetxeko proiektuaren atal bilakatzea.

Baliagarria izan dadila honako hitz hauekin hasi genuen hori lortzeko: hezteko, hazteko eta berritzeko.

Aurkibidea

1. ATALA. Aurkezpena eta testuingurua	
Aukera ekimena, konpromiso estrategiko bat.....	6
Ikastetxeen birtualizazio eredu propio bat edukitzeko aukera.....	8
MVC/IBE Plan Teknologiko bat baino gehiago	10
Ikastetxeetako kultura berriarekiko ekarpena	12
Aldi baterako zeruertza.....	12
2. ATALA. MVC/IBE egitasmoa osatzen duten arkoak	
1. Arloa. IKT azpiegitura eta ekipamendua.....	14
2. Arloa. Ikastetxeen prozesuak.....	23

3. Arloa. Pertsonak	35
Antolakuntza eta Koordinazioa	37
Prestakuntza	43
Ikasleen konpetentzia digitala	49
Ikasleen gaitasun digitala	64
Berrikuntza eta transformazio metodologikoa	66
Komunikazioa eta parte-hartzea	78
3. ATALA. Zure ikastetxea birtualizatzeko garaian kontuan hartu behar diren gakoak	88
Eskerrak	94

1. Atala

Aurkezpena eta testuingurua

I.I. AUKERA EKIMENA, KONPROMISO ESTRATEGIKO BAT

Abiapuntua

Iraultza digitala geldiezinezko abiaduran doa aurrera eta eszenatoki berriak argizatzen ari da; hortaz, IKT baliabide eta euskarri berriak sartzen ari dira eta horiek ikas-irakaskuntzari aukera ukaezinak eskaintzen dizkio. Horiei esker, hezkuntza-dinamiken hobekuntza pedagogiko eta transformazio metodologiko sakonak egin daitezke ikuspuntu berritzaile garbitik.

Horrenbestez, ikastetxeek ezin dute errealitate hori alde batera utzi eta ez luke logikarik izango batzuk bazter batean mantentzen saiatzea; izan ere, oro har teknologiak alor ekonomikoan eta sozialean barneratu dira itzulezina izatera iritsi arte, eta hezkuntzaren sektoreak nahitaez erantzun behar duen eskaera sortu du.

Horiek horrela, birtualizazioa jada ez da aukerakoa ikastetxeentzat eta derrigorrezkoa bilakatu da hezkuntzan berrikuntzak egiteko duten bokaziorako, eta hortaz, lehenbailehen eskari horri erantzuteko aukera ematen dieten egitasmo zehatzei ekin behar zaie.

Egoera horren aurrean, KEn argi eta garbi ondorioztatu genuen sareko ikastetxeek bertan dugun aldaketa sakon horretatik etekina ateratzeko gai izan behar dutela eta horretanoinarritu behar dutela ikastetxe guztietan hobekuntza metodologikoa indar guztiekin bultzatzeko, ingurune digitalak eskaintzen dituen aukera guztiez baliatuz.

Lehen unetik ere ohartu ginen, birtualizazio prozesuaren konplexutasuna eta egunerokotasunean eta ikastetxeetako hezkuntza-sisteman dituen ondorio handiak kontuan hartuta, ezin zela inprobisatu eta eraginkorragoa izango zela egitasmo baten definizioan eta koordinazioan sartzea KEko ikastetxeei babesa ematea baino, eszenatoki berri horrek eskainitako aukerak balio batean bilaka daitezen orokorrean eta sareko ikastetxe guztiekin partekatuz.

KEren esperientzia proiektu kolektiboak kudeatzen

KEk hartutako inplikazio zuzena eta aurre egiten dizkien hezkuntza-erronkei erantzuteko ikastetxeei laguntzeko hartu duen harrera proaktiboa dira hezkuntza bikaintasuna eta berrikuntza metodologikoa sustatzeko bokazioa baldintza zehatzetan adierazteko modurik onena.

Azken urteetan horrela defendatu eta sustatu dugu euskalduntzea ikastetxeetan eta, berriki, ANIZTU programaren bidez eleaniztasun eraginkorraren ezarpena bultzatzen ari gara; aldi berean, adimen anitzetan oinarritutako metodologia berriak eskaintzen dituzten egitasmoak suspertzen ari gara...

Aurrekari horietatik abiatuta, ikastetxeen birtualizazioaren erronkari erantzun zuzena emateko konpromisoa onartzeko erabaki estrategikoa hartu genuen. Hona hemen erantzun horren ezaugarriak:

AUKERA ekimena, erantzun gisa:

Ekimen horren bidez, ikas-irakaskuntza prozesuetan baliabide teknologikoen erabilera gehitu eta orokortzeko KEko sareko ikastetxe guztien aurrerapen trinkoa bultzatzen duen proiektua bete nahi da, aldaketa metodologikoa eta pedagogikoa lortzeko asmoz.

AUKERA sareko ikastetxe guztiei zuzendua dago, salbuespenik gabe, eta birtualizazio prozesuan abala emateko eta babesteko konpromisoa du, ilusioz beteriko erronka den gunerekin arrakasta izan dezaten.

**AUKERA proiektuaren
helburu nagusia da
aldaketa eta hobekuntza
pedagogikoa eta
metodologikoa sustatzea
ikastetxeetan
baliabide teknologikoak
orokorrean sartuz**

Ekimen horren garrantzia kontuan hartuta, hasieratik onartu genuen hurrengo urteetan KEK jarraituko duen muineko lan-ildoak bilakatu behar dela.

Beraz, AUKERA proiektuaren helburu nagusia da aldaketa eta hobekuntza pedagogikoa eta metodologikoa sustatzea ikastetxeetan baliabide teknologikoak orokorrean sartuz.

AUKERA programaren helburu da honako arlo hauetan laguntzea:

- Erreferentzia-esparru bat ezartzea, iraunkortasuna eta barne-koherentzia eman ditzan.
- Sareko lana sustatzea, esperientziak eta praktika egokiak partekatuta.
- Borrokatzea puntako ikastetxeen eta apalenen arteko jauzi digitala saihesteko, eta horrela, gure ikasle guztiei aukera berdintasuna eskaintzeko.
- Ikastetxeei tresnak eskaintzea aldaketak kudeatzeko, prestakuntza jasotzeko eta IKT aurrerapen elementuak pixkanaka sartzeko.

Hori lortzeko, AUKERA proiektuaren parte-hartzea lau ekintza-esparru hauexetan ardatzuko da:

- 1- Ikastetxeen Birtualizazio Eredu bat (MVC / IBE).
- 2- Irakasleen kompetentzia digitalaren ebaluazioa eta garapena.
- 3- Sareko lana: Balio erantsiko taldeak (BET) eta ikastetxeetako IKT arduradunak; plataforma kolaboratzaileak; sare sozial hezitzailea...
- 4- Esperientzia berri eta praktika egokien kanal anitzeko hedapen zabala: Jardunaldiak; lekuak, hedabideak eta plataforma digitalak...

AUKERA programaren bidez esku hartuko den lau esparru horietan, MVC/IBE da, zalantzarik gabe, elementurik esanguratsuena eta euskarri nagusia. Dokumentu honetan gai horren inguruko xehetasunak azalduko ditugu.

Hortaz, dagokion testuinguruan jarri ondoren, jarraian konfigurazioaren eta irismenaren inguruko hainbat xehetasun azalduko ditugu.

I.II. IKASTETXEEN BIRTUALIZAZIO EREDU PROPIO BAT EDUKITZEKO AUKERA

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da eredu hori hausnarketa prozesu baten emaitza

dela, eta bertan, hainbat Balio Erantsiko Taldeen (BET) bidez lan egin duten ikastetxeetako irakasleen parte-hartzea eta ikastetxeetako IKT arduradunen iritzia izan dugu, baita aditu ugariaren ekarpenak ere; horiek guztiek kalkulazina den babesa eman digute.

Ikastetxeetako Birtualizazio Eredu propio bat edukitzeko aukera hori, KEk hartutako erabaki estrategiko bat izan da sareko ikastetxeak elkartu eta guztientzat erreferentzia gisa baliagarria izan daitekeen jardunbide argi bat ezartzeko, marken interes komertzialaz edo hezkuntza-politikan gerta daitezkeen gorabeheraz haratago.

MVC/IBE horren bidez KEko ikastetxe guztien eskura jarri nahi da bakoitzaren birtualizazio ibilbidean modu koherente batean aurrera egiten laguntzen dien euskarri bat.

Eredu hori esparru orokor eta malgu bat izateko sortu da, ikas-irakaskuntza prozesuan birtualizazio eta IKTen mailarekiko ezaugarri ezberdinak eta posizio oso ugariak dituzten ikastetxeek euren Ekintza-plana sortzeko eta parte hartzeko aukera izan dezaten.

Birtualizazio prozesu guztiak ikastetxe bakoitzeko inguruarekin eta Hezkuntza-komunitatearekin bat etorri behar dute; hortaz, norberaren bereizitasunak aintzat hartu eta haien beharrei modu estuan eta egokian erantzun beharko diete.

Ikastetxeen Birtualizazio Ereduak aldeaz aurretik zehaztuta dauden ikas-irakaskuntzari lotutako ildo estrategiko guztietan garapen paraleloa eta bateratua bermatzen duen hobekuntza teknologiko eta metodologiko etengabea martxan jartzeko euskarri baliagarri bat izan behar du.

Ikastetxeei heziketarako tresna gisa IKTak sartzea bultzatzen dituen hezkuntza-proiektu batean integratzen den plangintza-tresna bat edukitzeko aukera ematen die, gaur egun arte egindako esfortzu guztiei koherentzia emateko eta zuzendaritza, irakasle, ikasle eta familien artean taldeko estrategia garatzen laguntzeko ikas-irakaskuntzan dinamika berriak martxan jartzeko.

Jarduera eskuragarriak proposatzen dizkigun egitasmo berritzaile bat eraginkortasunez kudeatzea erraztuko du; sortzen diren helburuen eta horiek lortzeko planifikatzen diren baliabideen arteko konexioa ezarriko du; estrategia berritzailea hezkuntza prozesuetan guztiz barneratzea eta ikastetxearekin lotura duten pertsona guztiek helburu komun bat izatea mesedetuko du.

I.III. MVC/IBE PLAN TEKNOLOGIKO BAT BAINO GEHIAGO

Aipatu dugunez, Ikastetxeen Birtualizazioa Eredua plan teknologiko bat sortzeko baino gehiagorako balio duen tresna bat izan behar du eta ez ditu helburuak beteko ekipamendu teknologikoetan eta horien funtzionalitate eragilean nagusitutako plan bat besterik ez balitz, nahiz eta tradizionalen ordeztu hezkuntza-eduki berriak edo digitalizatutako testuak barne hartu.

Horregatik beharrezkoa da Eredua IK Tetan soilik ez ardaztea, baizik eta horiek ikastetxean izan dezaketen eragin baikorreetan, sarbidea eman dezaketen kudeatzeko, komunikatzeko eta hezkuntza berritzeko aukera ugarietan oinarrituta.

Beraz, bai Aukera programaz bai bertan sartzen den MVC/IBE egitasmoaz ari garenean, beste ikuspuntu batetik proposatzen den eta soilik plan teknologiko batek baino garrantzi handiagoa duen proiektu baten inguruan hitz egiten dugu.

**Eredua ez da
soilik IK Tetan
ardazten,
baizik eta horiek
ikastetxean izan
dezaketen eragin
baikorreetan**

Hiru arlotan oinarritzen den Birtualizazio Eredu bat:

Horregatik, MVC/IBE birtualizazio prozesu orok jardun behar duen hiru arloetan modu paraleloan lan egiteko gauzatu da:

1- Azpiegiturak eta ekipamendua: Hardwarea, softwarea eta bai fisikoa bai birtuala den beste sareko elementuak.

2- Prozesuak: Irakasteko, administratzeko eta kudeatzeko, informatzeko eta komunikatzeko prozesu ugarietan IK Tak erabiltzea, horiek xede bat lortzeko jarduerak sorta bat garatzen dituzten prozesu gisa hartuz gero.

3- Pertsonak: Ikastetxeko antolakuntzan aldaketak; irakasleek bete behar duten gaitasun digitalaren profila; horien prestakuntza eta trebakuntza; eguneroko hezkuntza-jarduera gauzatzerakoa duten inplikazioa eta ikastetxeko informazioan eta komunikazioan duen ondorioa.

I.IV. IKASTETXEETAKO KULTURA BERRIAREKIKO EKARPENA

MVC/IBE egitasmoaren eguneroko gauzatzea eta erabilera ikastetxeko bizitzan indar handiz nabaritutako da eta kultura berri bat sortzen hastea eskatuko du, hezkuntza-komunitateko pertsona guzti-arten arteko elkarlana eta harremana beste modu batzuetan gauzatzeko asmoz.

Gaur egun arte erabilitako hezkuntza-dinamika gehienetan ikasgelan egindako banakako lana nagusitzen da, eta oraindik ez da oso ohikoa baliabideak eta esperientziak partekatzea edo elkarrekin lana egitea.

Horrenbestez, harremanak izateko eta jarduteko moduen egitura berriz ere diseinatzeko lagunduko duen giro bat sortzeko lan egin beharko da, ikastetxeak elkarlana eta talde-lana nagusitzen diren lekuak bilaka daitezkeen. Horrek modu baikorrean eragingo du ezagutza kolektiboa eratzeko eta hezkuntza-prozesuak babesteko.

Ikastetxeetako kulturaren eboluzio progresibo horrek inguruko beste ikastetxeekiko, eta kasu honetan bereziki, Kristau Eskola Sareko ikastetxeekiko jarrera irekiagoa edukitzea ekarriko du. Batez ere, AUKERA programaren bidez bultzatu nahi den dinamika da, aukeratu dugun goiburua azpimarratzen duen bezala: **“sare lanean aurrera eginez”**.

I.V. ALDI BATERAKO ZERUERTZA

Ikastetxeko kulturaren aldaketa progresiboa eta IKTen bidez egingo den transformazio metodologiko garrantzitsua, bereizten duen konplexutasuna aintzat hartuta, ez dira azkartasunez egiteko eta etapak hausteko edo presez eta larritasunez betetzeko eginkizunak, modu ordenatuan eta ondorio kaltegarriak sortzen dituzten hausturik gabe aurrera egin nahi bada.

Horrela, bada, hezkuntza berrizatzeko apustua errealitate berriari egokitu behar dela sinetsita egin behar da; eta beharrezkoa da jarrerara, modu eta estilo aldaketak bultzatzen dituzten ingurune berriak sortzea. Horrela, ikastetxeko kultura berri bat eraikiko dugu hezkuntza-komunitate osoa barne hartzen duena eta baldintza berriei erantzuten diena

Ondo planifikatu eta adostu behar da eta hezkuntza-komunitate osoari pixkanaka aurreratzen utzi behar zaio; hortaz, beharrezkoa da epe nahiko luzea ezartzea aurreikusitako jarduera guztiei paraleloki ekin diezaten.

Ondorioz, hasieratik birtualizazio prozesuak hainbat urte iraungo dituela onartzea komeni da, eta hori esker, epe laburrean aurrera egiten eta ikasturte bakoitzean beharrezkoak diren neurriak sartzeko aukera izango dugu. Gainera, epe ertainera lortu nahi den etorkizun estrategikoa eta horizontea une oro argi edukiko dugu.

Era horretan, MVC/IBE egitasmoaren ezarpen progresiboak hurrengo ikasturteetan zehar bultzada garrantzitsu bat ekarriko du eta ikastetxean IKTen inguruko heldutasun maila esanguratsu batera iristea lagunduko du. Horrek bidea emango du etorkizunean hobekuntza eta berrikuntza gehiago sartzeko jarraitzeko eta ambizio handiagoko helburuak proposatzeko, esaterako honako esparru hauen inguruan: curriculum eta metodologia, ebaluazio jarraia, ikasliburu tradizionalen ordezkapena, "gela birtualen" bidez ikasgelan gauzatutako jarduerarekiko babes digitala,...



2. Atala

MVC/IBE egitasmoa osatzen duten arloak

1. ARLOA. IKT AZPIEGITURA ETA EKIPAMENDUA

Sarrera

“IKT azpiegiturak eta ekipamendua” arloaren bidez KEko ikastetxeei gai horren inguruko orientazioa eskaini nahi zaie, eta egungo errealitateetik abiatuko da, begien bistatik galdu gabe epe laburreko, ertaineko eta luzeko etorkizuna.

Itemen eta mailen arteko harreman zehatz bat gauzatu da eta betiere iraunkortasuna, moldagarritasuna eta eskalabilitatea bezalako kontzeptuak gailendu dira, baita benetako beharrak eta finantza- eta ekonomia-irizpideak ere.

Gure ikastetxeen, ikasleen eta familien errealitatea inguratzen duten aldagai guztiak eta gure hezkuntza-komunitateko egungo eta etorkizuneko arlo sozio-ekonomikoa kontuan hartzen eta konbinatzen saiatu gara, eskuratu eta erraz jarraitu daitezkeen ibilbide bat sortzeko. Horri esker, espero dugu erabilgarria izatea KEko ikastetxeetan gai horren inguruko erabaki estrategikoak eta inbertitzaileak hartzeko ardura duten pertsona guztientzat.

Diseinatu dugun planteamendua baliagarria da, lehenik eta behin, ikastetxe bakoitzak gai horren inguruko egungo egoera zehaztu dezan eta, ondoren, zenbait irizpide eduki ditzan horietan oinarrituz kokatzeko.

Dena den, gauzatutako proposamenaren derrigorrezko helburuak ez dira “etapak betetzea” edo “bata bestearen atzetik mailak gainditzea”, eta hori jakinda gure proposamena ulertzea komeni da; kasu gehienetan, argi eta garbi ikusiko da zentzurik ez duela zorrozki pentsatzeak maila batetik bestera igaro behar dela.

Batzuetan, ez du zentzurik izango maila bakoitza ezkerretik eskubira eta maila guzti-guztiak igarotzen saiatzea, une jakin batean zaharkituta geratu den teknologia batean inbertitzeko akatsa egin daiteke eta.

Hala ere, proposamen hori oso lagungarria gerta daitekela uste dugu hezkuntza-arloan teknologiaren “joerak” ezagutzeko eta esparru horretan jarraitu beharreko ibilbidea eta lortu beharreko helburuak identifikatzeko. Gure behar teknologikoak betetzeko modu errealak direla kontuan hartu behar dugu, huts-hutsik erakargarritasunaren arabeko moda edo baliabideak jarraitu gabe.

Nahiz eta, oraingoz, aldi ideala kontzeptuzko eskaileran azken mailara arte jeistea izango litzatekeen, maila bakoitzaren inguruko ikusmolde komuna erantsiko dugu eta baikotzaren barruan dauden 5 maila progresiboak adieraziko ditugu; izan ere, badakigu item batzuen arabera eskailera horretatik banan-banako alboko pausuak eman beharko ditugula, beste batzuetan binaka, besteetan hirunaka... bertikaltasuna begien bistatik galdu gabe.

Bestalde, aurkezpen orientagarri hori birtualizazio prozesua arrakastaz lortzeko ikastetxeek aurre egin behar dituen hardware eta software beharrekin bete nahi dugu, eta hainbat aholku praktiko eskainiko ditugu errealismo apur bat eman eta lehentasunak nahiz larrialdiak xedatzen jakiten lagun dezaten:

1 - Oinarrizko azpiegiturak eta darabilkigun ekipamenduaren mantentze-lan teknologikobizkorra eta eraginkorra bermatzeko lehentasuna duen interesa adieraztea:

ikastetxeetan gauzatutako azpiegituren diagnostikoez berresten dutenez, nahitaezkoa da serioski hartzea oinarrietatik hasi eta ikastetxeetako datu- eta komunikazio-sistemetan (Internet-konexioa, zerbitzariak, kable-sareak eta switching-a, WIFI sarea...) hertsiki inbertitu behar dela.

2 - Baditugun teknologia-baliabideen erabilpena optimizatzea: Eskola 2.0 programaren eta/edo ikastetxe bakoitzak erositakoaren arabera erabiltzen den teknologia-baliabideak aprobetxatu eta eman beharrekoa luzatzen saiatu behar garen bitartekoak dira, gailu berriak erostea pentsatzen hasi aurretik.

Xehetasun handiz dugun parkea analizatzea komeni da eta, funtzionatzen ez duen ekipamendua baztertu ondoren, gure beharren arabera gainontzeakoari bigarren erabilera bat ematea balioeztatuko dugu. Horretarako, honako aukera hauen artean hauta dezakegu:

- Windows-eko irudi arin bat eta suite ofimatiko bat instalatzea
- Linux-eko irudi arin bat eta suite ofimatiko bat instalatzea
- Chromium instalatzea eta Google programak eskaintzen dizkigun aukerez baliatzea
- Oinarrizko abiapuntua instalatzea eta gure ekipamenduaren etekina kaltetuko ez dituzten aukera asko izango ditugun mahaigaineko birtualiazazioaren (aukera aurreratua) aurka lan egitea.

3 - Ekipamendu berria modu progresiboan eta pixkanakakoan eskuratzea: Ekipamendu berriak erosteko ondo programatu behar da eta ez da bulkada edo azken moda edo eskaintzaren arabera jardun behar. 1 x 1 proiektuak (ikasle bakoitzak gailu 1 edukitzea ikasirakaskuntza prozesuko euskarri nagusi gisa) azken helburutzat har daitezke, baina ez dira nahitaezkoak abiatzeko eta ez da komeni aurretiaz baldintza gisa ezartzea.

4 - Teknologia zehatz batek ez liluratzea: Ez dago teknologiarik argi eta garbi beste bat baino hobea denik; ezberdinak dira baina denak izan daitezke baliodunak. Hala ere, erabaki bat hartu aurretik, komeni da hezkuntza-arloan erabiltzen diren teknologia nagusien ondorioei buruzko xehetasun ezagutzea, aski egiaztatutako informazioaren baitan aukeratzeko.

Ebaluazio-taula interpretatzeko gakoak:

Interneterako sarbidea				
1	2	3	4	5
Sare lokala (LAN)				
1	2	3	4	5
Wifi lokala (WLAN)				
1	2	3	4	5
Switchinga				
1	2	3	4	5
Sareko trafikoaren kontrola				
1	2	3	4	5
Sareko segurtasuna				
1	2	3	4	5
Interneten sarteko gailuak				
1	2	3	4	5
Periferikoak				
1	2	3	4	5
Zerbitzariak / software / akademia- eta administrazio-kudeaketa zerbitzuak				
1	2	3	4	5
Zerbitzariak / software / kanpo- eta barne-komunikaziorako zerbitzuak				
1	2	3	4	5
Zerbitzariak / software / edukiak eta ikaskuntza-inguruetarako zerbitzuak				
1	2	3	4	5
Curriculumaren arabeko softwarea				
1	2	3	4	5

Azpiegiturak ebaluatzeko panela/taula:

1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	5. MAILA	OHARRAK
INTERNETERA SARBIDEA					
ADSL linea <0,5 MB bildutako gailu bakoitzeko	ADSL linea gutxi gorabehera 0,5 MB bildutako gailu bakoitzeko	Linea gutxi gorabehera 1 MB bildutako gailu bakoitzeko	Zuntza 1 MB bildutako gailu bakoitzeko	Zuntz simetrikoa 1 MB bildutako gailu bakoitzeko	
SARE LOKALA (LAN)					
Sare lokala UTP	Sare lokala UTP	- Sare lokala cat5e edo sup. - Zuntz optikoan gauzaturako azpiegitura enborreko loturentzat	- Sare lokala cat5e edo sup. - Zuntz optikoan gauzaturako azpiegitura enborreko loturentzat.	- Sare lokala zuntz optikoa. - Zuntz optikoan gauzaturako azpiegitura enborreko loturentzat. - % 100 ziurtaturako instalazioa	- 5e kategoriaz ziurtaturako jatorrizko kabletua ez da beharrezkoa 6 kategoriaz ordezkatzeko. - Linea berriak eta jada daudenen zuzengarriak, 6. kategoria instalatu (inoiz 5e), betiere zuntz optikoa baino kostu baxuagoa badu. - Enborreko loturak beti zuntz optikoaren bidez instalatu behar dira. - Gomendagarria da instalazio berrietan zuntz optikoaren ziurtagiria instalatzaileari eskatzea.
WIFI LOKALA (WLAN)					
Koordinatu gabeko sarbiderako puntu bakartuak	Koordinatu gabeko sarbiderako puntu bakartuak	Kudea daitekeen wifi sarea, ikastetxean estaldura partziala	Kudea daitekeen wifi sarea, ikastetxean % 100 estaldura	Kudea daitekeen wifi sarea kontroladore erredundantearekin, ikastetxean % 100 estaldura	
SWITCHINGA					
Kudea ezin daitezkeen switch-ak, 10/100 Mbps-ko komunikazioa	Kudea ezin daitezkeen switch-ak, 10/100/1000 Mbps-ko komunikazioa	- Switch nagusiak ataka bat baino gehiagokoak eta 1000 Mbps-ko abiadura dutenak Web-zerbitzari erantsia kudeatzeko. - PoE Switch-ak wifiguneak elikatzeke	- 10/100/1000 Mbps-ko abiadura duten switch-ak. Web-zerbitzari erantsia kudeatzeko. - PoE Switch-ak wifiguneak elikatzeke	- 10/100/1000 Mbps-ko abiadura duten switch-ak. Web-zerbitzari erantsia kudeatzeko. - PoE Switch-ak wifiguneak elikatzeke	

1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	5. MAILA	OHARRAK
SAREKO TRAFIKOAREN KONTROLA					
Su ebakirik ez	Su ebaki software	- Ardura bakarreko hardware suebakia - VLAN sare birtualak izatea trafikoa bereizteko.	- VLAN sare birtualak izatea. - Honako hauen zerbitzariak: suebakia, zerbitzuaren kalitatea, proxy azelerazioa, kargen kulunka, trafiko-monitoretza	- VLAN sare birtualak izatea. - Zerbitzari hauek: suebakia, zerbitzuaren kalitatea, proxy azelerazioa, kargen kulunka, trafiko-monitoretza Web-iragazketa URL kategorien bidez. - Sarbidearen kontrol pertsonalizatua.	- Internetera sarbideak ikastetxeko ordezkari legalek erantzukizun legala edukitzea eragingo du.
SAREKO SEGURTASUNA					
Antivirus lokal gabe	Ikastetxeko gune nagusietan antivirus lokalak	Ikastetxeko ordenagailu guztietan antivirus lokalak, lokalki kudeatuak	Zentralizatutako web-panel baten bidez kudeatutako antibiruz lokalak	Antivirus perimetralak, internet-konexioa eta posta elektronikoa analizatzeko	
INTERNETEN SARTZEKO GAILUAK					
- Ikastetxeak AZL-erako, bulegoetarako, irakasle-gelarako eta EGP-etarako ordenagailuak ditu. - Ikastetxeko ikasgeletan ez daude ordenagailuak. - Ez daude mugitzeko gailuak irakasleentzat. (tabletak eta/edo bihurgarriak)	- Ikastetxean 2 langileko ordenagailu bateko ratioa du. -Ikastetxeak ikasgelak partzialki ordenagailuez hornitzen ditu irakasleentzat. -Ez daude mugitzeko gailuak irakasleentzat. (tabletak eta/edo bihurgarriak)	- Ikastetxean langileko bakoitzeko ordenagailu bateko ratioa du. - Ikastetxeak ikasgelak guztiak ordenagailuez hornitzen ditu irakasleentzat. - Ez daude mugitzeko gailuak irakasleentzat. (tabletak eta/edo bihurgarriak)	- Ikastetxean langileko bakoitzeko ordenagailu bateko ratioa du. - Ikastetxeak ikasgela guztiak irakaslearentzat ordenagailuz hornitzen ditu, eta irakasle batzuk mugi daitezkeen gailuak dituzte (tabletak eta/edo bihurgarriak)	- Irakasle guztiak mugi daitezkeen gailuak dituzte (eta ikasgelako ordenagailua ordezkari dezakete) - Etaba zehatzetan irakasleek haienak edo ikastetxeakoak diren gailuak dituzte. (Eskola 2.0 baztertuz gero)	Ordenagailuak Tabletak Hibridoak edo bihurgarriak

1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	5. MAILA	OHARRAK
PERIFERIKOAK					
<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean tinta-zurrustako inprimatzaileak daude monopostua duten langileentzat. - Ez daude eskanerrak - Ikasgeletan ez daude proiektatzeko gailuak 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean laser-inprimatzaileak daude monopostua duten langileentzat. - Mahai gaineko eskanerrak daude - "Telebista eramateko orgak" erabiltzen dira ikasgeletan proiektatzeko 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean funtzionitzeko laser-inprimatzaileak daude leku zehatzetan eta sare bidez partekatzen dira. - Proiektore mugikorrek erabiltzen dira ikasgeletan proiektatzeko 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean inprimatzeko eta eskaneatzeko sistema zentralizaturik eta partekatua dago. - Ikastetxeak ikasgelen erdiak proiektatzeko gailuekin hornitzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean inprimatzeko eta eskaneatzeko sistema zentralizaturik eta sarean izendaturik dago. - Ikasgela guztietan proiektatzeko gailuak dituzte: hormako pantaila edo BGP - Ikastetxean web-kamerak daude bideokonferentziak egingeko. 	<p>Inprimatzaileak / Eskanerrak / Proiektoreak / Pantailak / BGP-ak / SmartTV-ak</p> <p>(Proiektzioari dagozkionez, Eskola 2.0 ikasgelak alde batean utzi ditugu)</p>
ZERBITZARIAK / SOFTWARE / AKADEMIA- ETA ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA ZERBITZUAK					
<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean ez daude akademia-kudeaketako software-ak - Ikastetxean ez daude kontabilitatea eta finantza kudeatzeko software-ak 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean zerbitzari lokaleko software bat dago akademia-kudeaketarako. - Ikastetxean ekonomia eta finantza kudeatzeko zerbitzari lokaleko software bat dago kontabilitatea eta finantza kudeatzeko 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean hodei-software bat dago akademia-kudeaketarako. - Ikastetxean ekonomia eta finantza kudeatzeko hodei-software bat dago kontabilitatea eta finantza kudeatzeko Zerbitzariak / software 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean ERP integral bat dago zerbitzari lokal batean eta kontulari eta finantzario kudeaketa egiten du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean ERP integral bat dago hodeian eta kontulari eta finantzario kudeaketa egiten du. 	<p>Akademia kudeaketa Kontabilitate/ Finantza kudeaketa</p>

1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	5. MAILA	OHARRAK
ZERBITZARIAK / SOFTWAREA / BARNE- ETA KANPO-KOMUNIKAZIORAKO ZERBITZUAK					
<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean ez dago intranetik. - Ikastetxeak ez du webgunerik domeinu propioan. - Ikastetxeak ez du sare sozial hezitzailerik, eta ez dira hirugarren sare sozialak erabiltzen ikasgelan. - Ikastetxeak ez du posta korporatiborik (domeinu propioan). - Ikastetxeak ez du profil korporatiborik sare sozial batean. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean “intranet” gisa hartzen da karpetak denen artean partekatzeko egitura. - Ikastetxeak webgune propioa du, eta kanpotik kudeatzen da. - Ikastetxeko intranetak ez du barne-komunikaziorako sare sozialaren funtziorik. -Ikastetxean posta korporatiboa dago soilik hezitzaile eta AZLentzat. - Ikastetxeak profil korporatiboa du sare sozialen batean, eta kanpotik kudeatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean “intranet” gisa hartzen da izendatutako karpetak partekatzeko egitura - Ikastetxeak webgune propioa du, eta barrutik kudeatzen da erabiltzaile bakar gisa. - Ikastetxeko intranetak ez du barne-komunikaziorako sare sozialaren edo hezkuntza-plataformaren funtziorik. Paraleloki, zenbait irakaslek sare sozialak erabiltzen dituzte ikasgai jakin batzuetan. - Ikastetxean posta korporatiboa dago hezitzaile, AZL eta taldeko koordinatzaileentzat. - Ikastetxeak profil korporatiboa du sare sozialen batean, eta barrutik kudeatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean aplikazioak dituen (ordezkapenak, gu- neen erreserba, etab.) barne-intraneta du, eta lokalean kokatzen da. - Ikastetxeak webgune propioa du, eta barrutik kudeatzen da erabiltzaile anitzten bidez. - Ikastetxeak langileek eta ikasleek erabiltzen duten sare soziala du. - Ikastetxean posta korporatiboa dago langile guztientzat. - Ikastetxeak profil korporatiboak ditu sare sozialetan, eta barrutik kudeatzen da. Elkarren artean konektatuta daude APlen bitartez. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean aplikazioak dituen (ordezkapenak, gu- neen erreserba, etab.) barne-intraneta du, eta hodeian kokatzen da. - Ikastetxeak webgune propioa du, eta barrutik kudeatzen da erabiltzaile anitzten bidez. Gainera, sindikazio-funtzioak betetzen ditu -Ikastetxeak hezkuntza-komunitate osoak erabiltzen duen sare soziala du. - Ikastetxean posta korporatiboa dago langile eta ikasle guztientzat DBHtik aurrera (edo lehenago) - Ikastetxeak profil korporatiboak ditu sare sozialetan, eta barrutik kudeatzen da. Elkarren artean konektatuta daude, bai eta ikastetxeko webgune korporatiboari ere. 	<p>Intraneta Webgunea Sare sozial hezitzailea Posta korporatiboa Sare sozialak</p>

NIVEL 1	NIVEL 2	NIVEL 3	NIVEL 4	NIVEL 5	NOTAS
ZERBITZARIAK / SOFTWAREA / EDUKIAK ETA IKASKUNTZARAKO INGURUNE BIRTUALERAKO ZERBITZUAK					
<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean ez da zerbitzaririk erabiltzen edukiak gordetzeko. - Ikastetxean ez da software/ zerbitzari/ irakaskuntzarako ingurune birtualen zerbitzurik erabiltzen. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean dokumentuen zerbitzari lokala erabiltzen da, eta kanpotik kudeatzen da. - Ikastetxean software/ irakaskuntzarako ingurune birtualen zerbitzu lokala erabiltzen da, eta kanpotik kudeatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean dokumentuen zerbitzari lokala erabiltzen da, eta barrutik kudeatzen da - Ikastetxean software/ irakaskuntzarako ingurune birtualen zerbitzu lokala erabiltzen da, eta barrutik kudeatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxean dokumentuen zerbitzaria erabiltzen da hodeian. - Ikastetxean software/ irakaskuntzarako ingurune birtualen zerbitzua erabiltzen da, eta hodeian kokatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxeak artxibo eta karpeten zerbitzari bat erabiltzen du hodeian, eta posta korporatiboarekin, egutegiekin eta bestelakoekin bat egiten du. - Ikastetxean software/ irakaskuntzarako ingurune birtualen zerbitzua erabiltzen da hodeian, eta posta korporatiboarekin bat egiten du. 	Ikaskuntzarako ingurune birtualen edukien biltegia
CURRICULUMAREN ARABERAKO SOFTWAREA					
<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxeak ez du definituta curriculumaren araberako softwarearen kontzeptua. - Gailuek hainbat fabrikatzaile eta bertsioko sistema eragileak dituzte. Idemak suite ofimatikoentzat - Gailuek ez dituzte Crik: ez du izozketa-sistemak babesten 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxeak definituta du curriculumaren araberako softwarearen kontzeptua. - Gailuek fabrikatzaile bereko sistema eragileak dituzte, nahiz eta bertsio ezberdinak dituzten. Idemak suite ofimatikoentzat - Gailuek C dute: izozketa-sistema erre-aktibo batek babesten du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gailu guztiak sistema eragilearen azken bertsioa dute eta fabrikatzailearen azkenareko bertsioa da. - Gailu guztiak suite ofimatiko bera erabiltzen dute eta fabrikatzailearen azkenareko bertsioa da. - Gailuek C dute: izozketa-sistema erre-aktibo batek babesten du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gailu guztiak sistema eragilearen azken bertsioa dute eta fabrikatzailearen azken bertsioa da. - Gailu guztiak suite ofimatiko bera erabiltzen dute eta fabrikatzailearen azken bertsioa da. - Gailuek C dute: izozketa-sistema pro-aktibo batek babesten du (posible den horietan) 	<ul style="list-style-type: none"> - Gailu guztiak sistema eragilearen azken bertsioa dute eta fabrikatzailearen azken bertsioa da. - Gailu guztiak suite ofimatiko bera erabiltzen dute eta cloud azken bertsioa da (ez mahaigainekoa). - Gailuek C dute: izozketa-sistema pro-aktibo batek babesten du (posible den horietan) 	Sistema eragileak Suite ofimatikoak Akatsekiko tolerantzia duen softwarea (baliozkoak ikastetxe-koak diren gailuetarako, BYOD atala baztertzeko da).

2. ARLOA. IKASTETXEEN PROZESUAK

Sarrera

Birtualizazio Ereduko prozesuen alorrak ikastetxe batek teknologiak erabiliz garatzen dituen jarduera multzoei dagokio.

Eusko Jaurlaritzaren IKT Heldutasun Eredua funtsean jarduera-esparru berari dagokionez, uste dugu egokiena proposamen horren baitan jardutea dela, batez ere izaera ofizialeko ziurtapenerako eredia baita. Hau da, IBEn esparruan, birtualizazioaren mailako aurrerapena egiten duen ikastetxea Eusko Jaurlaritzak ezarritako baldintzekin guztiz bat dator, ziurtapena eskuratu ahal izateko.

Ondorioz, IBEn lehen edizio honetan, 2015eko urriaren 6an argitaratutako aginduan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren IKT Heldutasun Eredua osorik jasotzen da.

Ebaluazio-taula interpretatzeko gakoak:

Ebaluazio-taula eratzean, Eusko Jaurlaritzako heldutasun-ereduan aurkeztutako prozesuen banaketari jarraitu diogu; hasierako lehen maila ere gehitu dugu, hasierako kasu guztiak jasotzeko asmoz.

Horrela, prozesuen ataleko ebaluazio-taula gauzatzean honako hauek bereizi ditugu:

Irakasleen prozesuak: izenak adierazten duen bezala, ikasgela barruan edo kanpoan irakasleen jarduerari lotutako prozesuak jasotzen dira.

Horien artean, honako atal hauei lotutako eginkizunak azpi-prozesu gisa definitu dira:

- **Irakasleen kudeaketa:** hezkuntza-programazioei buruzko dokumentazioaren digitalizazio-maila; ikasturteko memoriak; ohar eta beste dokumentuen txostenak eta buletinak, hala nola, harrera eta orientazioa.

- **IKT baliabideen erabilera:** ikasgelako jardueretan horiek sartzeari buruzkoak, baliabide ezberdinen erabileraren eta horiek 4 mailen arabera duten progresioaren artean bereizketa egirik.
- **Prestakuntza:** ikastetxean egin beharreko prozesuak dira, irakasleen eta ikastetxeko langileen prestakuntza-beharrak kudeatzeko eta aintzat hartzeko.
- **Berrikuntza:** Ikastetxeko metodologiaren berrikuntza eta horren arabera beste erakundeekin ikastetxeak egiten duen sare-lana eta elkarlana planifikatzeko, edo horretara bideratutako jarduerak dauden definitzeko.

Administrazio-prozesuak: Zuzenean irakasleen jarduerari lotu gabeko horiek dira, eta honako atal hauei buruzko informazioa jasotzen dute:

- **Ikastetxeko plangintza eta antolakuntza:** derrigorrezko dokumentuen digitalizazio eta kudeaketa birtualaren maila; ikasketa-espeditzea; ordu-tegi eta eremuen kudeaketa, etab.
- **Aktiboak eta azpiegiturak:** liburutegia-mediatekaren kudeaketa birtualari eta digitalizazioari, inbentarioari, segurtasun-kopia eta informazioa eskuratzeko kontrolari buruzko progresio-mailaren xedapena.
- **Ekonomia:** ikastetxeko birtualizazio-mailaren plangintzari eta, era berean, kudeaketa ekonomikoari lotutakoa.
- **Berrikuntza:** ikastetxeko kudeaketa eta administrazio alorretan jarduera berritzaileak sartzeari buruzkoa.

Informatzeko eta komunikatzeko prozesuak: ikasgelako eta ikastetxeko jarduerari lotutako komunikazioaren gaineko prozesuak biltzen dira bertan, eta hauexen artean bereizten du:

- **Ikasketa - edo akademia - prozesuko komunikazioa eta informazioa:** ikasgelako jarduerekin (komunikazio eta agenda bitartekaria), ebaluazioarekin, bertaratze eta buletinekin, eta digitalki kexak eta iradokizunak bidaltzeko aukerarekin lotutako komunikazio-ekintzak jasotzen ditu.

- **Ikastetxeko komunikazio eta informazio orokorra:** bai ikastetxe barruko bai kanpoko komunikazioaren digitalizazio-mailari dagokio.

Bikaintasunari buruzko 5. mailari dagokionez, hasieratik pentsatu genuen ez zettorrela bat aurreko ikusmoldearekin, eta bakarkako taula generiko bat egitea erabaki genuen.

Dena den, behin IBE osoa gauzatu eta azken emaitza ikusita, ondorioztatu dugu 5. mailari lotutako prozesuak argi eta garbi horietan parte hartzen duten pertsoneri lotuta daudela. Ondorioz, KEko IBEren barruko 3. arloko (Pertsonak) tauletan hobeki sartzen direnez, bertan jasotzen dira.

Ondorioz, erabaki dugu 2. arlo honetako ebaluazio-taulan azken maila horri atal berezirik ez ematea.



Prozesuen ebaluazio-taula

1. Irakasleen prozesuak:

AZPI-PROZESUAK		1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA
IRAKASLEEN KUDEAKETA	Programazioa	Ikastetxeak formatu estandarizatu bat du programazioak egiteko, eta ikastetxeko ordenagailu batean erabilgarri dago.	Irakasleen % 50ek, gutxienez, formatu digital editagarrian egiten du programazioa.	Irakasleen % 75ek, gutxienez, formatu estandarizatuan egiten ditu programazioak, eta ikastetxeko sarean erabil daitezke.	Irakasleen % 95ek koaderno digitalaren bidez prestatzen eta jarraitzen ditu programazioak.
	Memoria	Ikastetxeak formatu estandarizatu bat du memoriak egiteko, eta ikastetxeko ordenagailu batean erabilgarri dago.	Irakasleen % 50ek, gutxienez, formatu digital egiten du bere mailako eta/edo arloko memoria.	Irakasleen % 75ek, gutxienez, formatu estandarizatuan egiten du memoria, eta ikastetxeko sarean erabil daitezke.	Irakasleen % 95ek formatu estandarizatuan egiten du memoria, eta ikastetxeko sarean erabil daitezke.
	Noten txostenak eta buletinak	Azken noten txostenak, buletinak eta aktak formatu digitalean egin eta gordetzen dira.	Ebaluazio bakoitzeko txostenak eta notak formatu digitalean egiten eta jasotzen dira.	Irakasleek ikastetxeko sarean erabil daitekeen aplikazio baten bidez kudeatzen dituzte ikasleen notak eta hutsegiteak.	Irakasleek Interneten erabil daitekeen web-aplikazio baten bidez kudeatzen dituzte ikasleen notak eta hutsegiteak.
	Bestelako dokumentuak	Harrera, tutoretza eta orientazioaren (beharrezkoa izanez gero) inguruko dokumentazio orokorra formatu digitalean egin eta gordetzen da.	Harrerari, tutoretzari eta, beharrezko bada, orientazioari buruzko dokumentu nagusiak digitalizatuta daude, eta ikastetxeko ordenagailu batetik edo zenbaitetatik eskura ditzakete irakasleek.	Harrerari, tutoretzari eta, beharrezko bada, orientazioari buruzko dokumentuak ikastetxeko sarean eskura ditzakete irakasleek eta irakasleek, erabilera-profilen arabera.	Harrerari, tutoretzari eta, beharrezko bada, orientazioari buruzko dokumentuak Interneten erabil daitekeen web-aplikazio baten bidez eskura ditzakete irakasleek, irakasleek eta familiek.

AZPI-PROZESUAK		1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA
IKT BALIABIDEEN ERABILERA	Ikasgelako ekintzen hautaketa	Gutxienez irakasleen % 10ak programazioan unitate didaktikoen eta/edo material digital osagarrien arteko harreman eguneratua du ikasleekin erabiltzeko.	Irakasleen % 40k, gutxienez, ikasleekin erabiltzeko unitate didaktiko digitalen eta/edo material digital osagarrien zerrenda eguneratua du bere programazioan.	Irakasleen % 40k, gutxienez, ikasleekin erabiltzeko unitate didaktiko digitalen eta/edo material digital osagarrien zerrenda eguneratua du bere programazioan.	Irakasleen % 90ek baino gehiagok ikasleekin erabiltzeko unitate didaktiko digitalen eta/edo material digital osagarrien zerrenda eguneratua du bere programazioan.
	Edukien eta biltegien egokitzapena	Gutxienez maila bakoitzeko arloetako % 10an irakasleak eduki digitalak egokitu eta ikastetxearen eskura utzi ditu.	Maila bakoitzeko arloen % 20n, gutxienez, irakasleek eduki digitalak sortu edo egokitu dituzte prozeduraren baten bidez, esaterako: edukiak itzultzea, baliabide digitalekin lotutako jardueren sekuentziak osatzea, arlo eta gaiaren erreferentziako webgune bat sortzea, eta egile-tresnen bitartez jarduerak sortzea. Baliabideak ikastetxearen esku daude.	Maila bakoitzeko arloen % 50en, gutxienez, irakasleek eduki digitalak sortu edo egokitu dituzte prozeduraren baten bidez, esaterako: edukiak itzultzea, baliabide digitalekin lotutako jardueren sekuentziak osatzea, arlo eta gaiaren erreferentziako webgune bat sortzea, eta egile-tresnen bitartez jarduerak sortzea. Baliabideak ikastetxeko sarearen bidez partekatuta daude.	Maila bakoitzeko arloen % 90en, gutxienez, irakasleek eduki digitalak sortu edo egokitu dituzte prozeduraren baten bidez, esaterako: edukiak itzultzea, baliabide digitalekin lotutako jardueren sekuentziak osatzea, arlo eta gaiaren erreferentziako webgune bat sortzea, eta egile-tresnen bitartez jarduerak sortzea. Baliabideak hezkuntza-komunitate guztiarekin partekatuta daude.
	Oinarrizko baliabideen erabilera	Bideo proiektorea, ordenagailua eta sarera sarbidea, ikasturte bakoitzean gutxienez unitate bat garatzeko erabiltzen diren baliabideak dira.	Bideo-proiektorea, ordenagailua eta sarerako sarbidea ohiko baliabideak dira egunerokotasunean, eta arlo guztietako saioen % 10en, gutxienez, erabili beharko dira.	Bideo-proiektorea, ordenagailua eta sarerako sarbidea ohiko baliabideak dira gunerokotasunean, eta arlo guztietako saioen % 40n, gutxienez, erabili beharko dira.	Bideo-proiektorea, ordenagailua eta sarerako sarbidea ohiko baliabideak dira egunerokotasunean, eta arlo guztietako saioen % 80n, gutxienez, erabili beharko dira.

AZPI-PROZESUAK		1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA
IKT BALIABIDEEN ERABILERA	Multimedia baliabideen erabilera	Ikasturte bakoitzeko arlo guztietan gutxienez % 10 multimedia-baliabideekin (bideoak, audioak, irudiak,...) osatzen dira.	Maila bateko arlo guztien % 30, gutxienez, irakasleek edo ikasleek bildutako edo sortutako multimediabaliabideak (bideoak, audioak, irudiak,...) erabiliz osatzen da.	Maila bateko arlo guztien % 50, gutxienez, irakasleek edo ikasleek bildutako edo sortutako multimediabaliabideak (bideoak, audioak, irudiak,...) erabiliz osatzen da.	Maila bateko arlo guztien % 90 baino gehiago irakasleek edo ikasleek bildutako edo sortutako multimedia-baliabideak (bideoak, audioak, irudiak,...) erabiliz osatzen da.
	Web inguruneen erabilera	Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera ikasgeletan garatzen diren arloen % 10 web ingurune baliabideekin (blogak, wikiak, webquest-ak,...) osatzen da.	Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera, ikasgelan lantzen diren arloen % 20n, ikasleek baliabideak (blogak, webguneak, hodei-biltegitratzea, webquestak) erabiltzen dituzte, edo webtresnekin sortzen dituzte.	Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera, ikasgelan lantzen diren arloen % 50en, ikasleek baliabideak (blogak, webguneak, hodei-biltegitratzea, webquestak) erabiltzen dituzte, edo web 2.0 tresnekin sortzen dituzte.	Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera, ikasgelan lantzen diren arloen % 90en, ikasleek baliabideak (blogak, webguneak, hodei-biltegitratzea, webquestak) erabiltzen dituzte, edo web 2.0 tresnekin sortzen dituzte.
	Ikaskuntza ingurune birtualen erabilera	Ikastetxean ikaskuntza ingurune birtuala dago.	DBHko 1. mailatik aurrera, ikastetxeak Ikaskuntza Ingurune Birtual (IIB) bat du; bertan, arloen % 30ek, gutxienez, unitate didaktikoren bat garatu du, ikaskuntzaingurune birtualeko ariketekin.	DBHko 1. mailatik aurrera ikasgelan garatzen diren arloen % 40k, gutxienez, jarduera bat garatu du Ikaskuntza Ingurune Birtualean (IIB) ikasturteko unitate didaktiko bakoitzeko.	DBHko 1. mailatik aurrera ikasgelan garatzen diren arloen % 60k baino gehiagok jarduera bat garatu du Ikaskuntza Ingurune Birtualean (IIB) ikasturteko unitate didaktiko bakoitzeko.
	Inklusibitatea	Ikastetxeak hainbat instalazio irekitzen ditu ikasleek IKTak askatasunez eta borondatez erabili ditzaten gutxienez 30 orduz ikasturtean zehar.	Ikastetxeak instalazio eta baliabideak jartzen ditu ikasleentzako, Internet eta tresna ofimatikoak libreki eta nor bere gogoz erabiltzeko; ikasturtean zehar, 100 orduz, gutxienez.	Ikastetxeak instalazio eta baliabideak jartzen ditu ikasleentzako, Internet eta tresna ofimatikoak libreki eta nor bere gogoz erabiltzeko; ikasturtean zehar, 130 orduz, gutxienez.	Ikastetxeak instalazio eta baliabideak jartzen ditu ikasleentzako, Internet eta tresna ofimatikoak libreki eta nor bere gogoz erabiltzeko; ikasturtean zehar, 160 orduz, gutxienez.

AZPI-PROZESUAK		1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA
PRESTAKUNTZA	Prestakuntza-plana	Ikasturtean zehar nolabaiteko prestakuntza egiten da irakasleen gaitasun digitala garatzeko.	Irakasleen gaitasun digitala garatzeko prestakuntza-plan bat dago.	Aurretiko dokumentu bat dago, euskarri digitalean; bertan, ikastetxeak berak zehazten ditu ikastetxeko irakasleek eta irakasle ez diren langileek zer gaitasun garatu behar dituzten, eta, horrez gain, lagungarria da urteko prestakuntzaplana egiteko.	Aurretiko dokumentu bat dago, euskarri digitalean; bertan, ikastetxeak berak zehazten ditu ikastetxeko irakasleek eta irakasle ez diren langileek zer gaitasun garatu behar dituzten, eta, horrez gain, autoebaluzioa egiteko adierazleak ditu.
	Metodologiaren eta irakasleen kudeaketaren berriztapena	Ikasturtean zehar, nolabaiteko egintzak gauzatzen dira IKTen erabilpenean oinarritutako metodologiaren eta irakasleen kudeaketaren berriztapena bideratzeko.	Ikastetxearen urteko planean eta/edo kudeaketa-planean aintzat hartzen dira berrikuntza metodologikoa edota irakaskuntza-kudeaketaren berrikuntza helburu duten ekintzak, IKTen erabileran sustengatuak.	Ikastetxearen urteko planean eta/edo kudeaketa-planean aintzat hartzen dira berrikuntza metodologikoa eta irakaskuntza-kudeaketaren berrikuntza helburu duten ekintzak, IKTen erabileran sustengatuak.	
BERRIKUNTZA	Berrikuntzarako lankidetzak			Ikastetxeak beste erakunde batzuekin (beste ikastetxe, erakunde edo enpresa batzuekin) esku hartzen du berrikuntza metodologikoaren proiektuetan edo irakaskuntza-kudeaketaren berrikuntzan.	Ikastetxeak beste erakunde batzuekin (beste ikastetxe, erakunde edo enpresa batzuekin) esku hartzen du berrikuntza metodologikoaren proiektuetan eta irakaskuntza-kudeaketaren berrikuntzan.

2. Administrazio-prozesuak:

AZPI-PROZESUAK		1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA
IKASTETXEKO PLANGINTZA ETA ANTOLAKUNTZA	Derrigorrezko dokumentuak	Ikastetxearentzat garrantzitsuak edo derrigorrezkoak diren dokumentuak (IHP, IUP, AJA, zirkularrak eta dekretuak, etab.) digitalizatuta daude.	Ikastetxerako derrigorrezkoak edo garrantzikoak diren dokumentuak (Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Ikastetxearen Urteko Plana, Antolamendu eta Jarduera Araudiak, zirkularrak eta dekretuak...) digitalizatuta eta irakasle guztien eskura daude, ordenagailu batean edo zenbaitetan.	Ikastetxerako derrigorrezkoak edo garrantzikoak diren dokumentuak (Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Ikastetxearen Urteko Plana, Antolamendu eta Jarduera Araudiak, zirkularrak eta dekretuak...) digitalizatuta eta irakasle eta ikasle guztien eskura daude, ikastetxeko sarean.	Ikastetxerako derrigorrezkoak edo garrantzikoak diren dokumentuak (Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Ikastetxearen Urteko Plana, Antolamendu eta Jarduera Araudiak, zirkularrak eta dekretuak...) digitalizatuta eta irakasle, ikasle eta familia guztien eskura daude, Interneten bidez.
	Irakasleen ordutegiaren kudeaketa	Ordutegien eta zaintzen kudeaketa formatu digitalean egin eta gordetzen da.	Ordutegiei eta zaintzaldiei buruzko informazioa formatu digitalean eta irakasle guztien eskura daude, ordenagailu batean edo zenbaitetan.	Ordutegiak eta zaintzaldiak aplikazio baten bidez egiten dira, eta informazioa irakasle guztien eskura dago, ikastetxeko sarean.	Ordutegiak eta zaintzaldiak aplikazio baten bidez egiten dira, eta informazioa irakasle guztien eskura dago, Interneten bidez.
	Bestelako ordutegi-taulak	Ikastetxeak editatu daitekeen formatu digitalean erregistratuta eduki behar ditu honako alor hauen inguruko dokumentuak: Ikasle taldeen zerrenda. Talde bakoitzaren ordutegia irakasgaien arabera. Irakasleen eta eman beharreko irakasgaien ordutegia.	Ikastetxeak formatu digital editagarrian erregistratuta izan behar ditu hauei buruzko dokumentuak: Ikasle-taldeen zerrendak. Talde bakoitzaren ordutegia eta irakasgaiak. Irakasleen ordutegia eta eman beharreko irakasgaiak. Bisiten ordutegia (familien harrera). Ikastetxeko baliabide fisikoen ordutegia. Esaterako: laborategiak, informatika-gelak, liburutegia, eta ingeleseko gela.	Ikastetxeak formatu digital editagarrian eta, profilen arabera, ikastetxeko sarean eskuratzeko moduan erregistratuta izan behar ditu hauei buruzko dokumentuak: Ikasle-taldeen zerrendak. Talde bakoitzaren ordutegia eta irakasgaiak. Irakasleen ordutegia eta eman beharreko irakasgaiak. Bisiten ordutegia eta eman beharreko irakasgaiak. Bisiten ordutegia (familien harrera). Ikastetxeko baliabide fisikoen ordutegia. Esaterako: laborategiak, informatika-gelak, liburutegia, eta ingeleseko gela.	Ikastetxeak erregistratuta eta, erabiltzaileen profilen arabera, Interneten eskuratzeko moduan izan behar ditu hauei buruzko dokumentuak: Ikasle-taldeen zerrendak. Talde bakoitzaren ordutegia eta irakasgaiak. Irakasleen ordutegia eta eman beharreko irakasgaiak. Bisiten ordutegia (familien harrera). Ikastetxeko baliabide fisikoen ordutegia. Esaterako: laborategiak, informatika-gelak, liburutegia, eta ingeleseko gela.

AZPI-PROZESUAK		1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA
IKASTETXEKO PLANGINTZA ETA ANTOLAKUNTZA	Eremuen kudeaketa	Eremu eta baliabide fisikoen erreserben kudeaketa formatu digitalean eskuragarri dagoen txantilo moduko dokumentu bat betetzen gauzatzen da.	Espazio fisikoen eta baliabideen erreserbak kudeatzeko, formatu digitalean dagoen txantilo erako dokumentu bat bete behar da.	Espazio fisikoen eta baliabideen erreserbak aplikazio informatiko baten bidez kudeatzen dira, eta aplikazio hori ikastetxeko edozein ordenagailutatik erabil daiteke.	Espazio fisikoen eta baliabideen erreserbak aplikazio informatiko baten bidez kudeatzen dira, eta aplikazio hori ikastetxeko nahiz ikastetxetik kanpoko edozein ordenagailutatik erabil daiteke.
	Liburutegia-mediateka	Liburutegia-mediatekaren kudeaketa formatu digitalean eskuragarri dagoen txantilo moduko dokumentu bat betetzen gauzatzen da.	Bibliografia- eta multimedia-baliabideen kudeaketa aplikazio informatiko baten bidez egiten da.	Irakasle eta ikasleek ikastetxeko sarean kontsulta ditzakete bibliografia eta multimedia-baliabideak.	Irakasle, ikasle eta familiek, erabiltzaileen profilen arabera, Interneten bidez kontsulta ditzakete bibliografia eta mediateka-baliabideak.
AKTIBOAK ETA AZPIEGITURAK	Inbentarioa	Ikastetxeak formatu digitalean jasotzen ditu inbentariatu nahi edo derrigorrez egin behar dituen tresnak.	Ikastetxeak formatu digitalean jasotzen ditu inbentariatu beharrezkoak dituen edo horretara derrigortuta dagoen tresnak.	Inbentariatuak elementuak ikastetxeko sarean kontsulta daitezke.	
	Mantenua	Ikastetxeko mantenuaren (informatikoa, mekanikoa, elektrikoa...) kudeaketa formatu digitalean eskuragarri dagoen txantilo moduko dokumentu baten bidez gauzatzen da.	Ikastetxeko mantentze-lanen kudeaketa (informatikoa, mekanikoa, elektrikoa...) formatu digitalean dagoen txantilo erako dokumentu baten bidez egiten da.	Ikastetxeko mantentze-lanen kudeaketa (informatikoa, mekanikoa, elektrikoa...) egiteko protokoloa dokumentu batean azaldu da, eta ikastetxeko sarean dagoen aplikazio informatiko baten bidez egiten da.	Ikastetxeko mantentze-lanen kudeaketa (informatikoa, mekanikoa, elektrikoa...) egiteko protokoloa dokumentu batean azaldu da, eta Interneten bidez egiten da.

AZPI-PROZESUAK		1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA
AKTIBOAK ETA AZPIEGITURAK	Segurtasun kopiak	Aldizka kopiak egiten dira.	Idatzizko dokumentu bat dago, segurtasun-kopiak egiteko protokoloa eta datuak berreskuratzeko prozedura zehazten dituena.	Idatzizko dokumentu bat dago, segurtasun-kopiak egiteko protokoloa eta datuak berreskuratzeko prozedura zehazten dituena. Kopiak egiaztatzeko aldia zehazten da, eta egiaztapenen erregistro bat dago.	Idatzizko dokumentu bat dago, segurtasun-kopiak egiteko protokoloa eta datuak berreskuratzeko prozedura zehazten dituena. Kopiak egiaztatzeko aldia zehazten da, eta egiaztapenen erregistro bat dago. Segurtasun-kopiak zerbitzariak bestelako toki batean daude (beste lokal batean).
	Informazioa eskuratzeko kontrola	Ikastetxeko artxibo digitalak eskuratzeko kontrola dago.	Administrazio-izaerako agiriei edo kudeaketa-agiriei dagokienez, dokumentu batean zenbait gairi buruz hartutako erabakiak azaltzen dira, adibidez: zer informazio gorde behar den, non eta nork eskuratu ahal izango duen.	Administrazio-izaerako agiriei edo kudeaketa-agiriei dagokienez, dokumentu batean zenbait gairi buruz hartutako erabakiak azaltzen dira, adibidez: zer informazio gorde behar den, non eta nork eskuratu ahal izango duen. Erabiltzaileek plataformak eta ikastetxearen berezko inguruneak erabiltzeari erreferentzia egiten zaio.	
EKONOMÍA	Ekonomiaren kudeaketa eta plangintza	Ikastetxeko ekonomiaren kudeaketa eta plangintza formatu digitalean egiten da.	Ikastetxeko ekonomiaren kudeaketa eta plangintza aplikazio informatiko baten bidez egiten da.	Ikastetxeko ekonomiaren kudeaketa eta plangintza aplikazio informatiko baten bidez egiten da, eta aplikazio hori administrazioko edozein ordenagailutatik erabil daiteke.	Ikastetxeko ekonomiaren kudeaketa eta plangintza aplikazio informatiko baten bidez egiten da, eta aplikazio hori Interneten bidez erabil daiteke.

AZPI-PROZESUAK		1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA
BERRIKUNTZA	Administrazio kudeaketaren berrikuntza			Ikastetxearen urteko planean eta/edo kudeaketa-planean aintzat hartzen dira kudeaketa administratiboaren berrikuntza helburu duten ekintzak, IKTen erabileran sustengatuak.	

3. Informazio- eta komunikazio-prozesuak:

AZPI-PROZESUAK		1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA
IKASTALDI EDO AKADEMIA PROZESUKO KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA	Ikasgelako jarduerak	DBHko 1. mailatik aurrera, gutxienez irakasleen % 10 digitalki komunikatzen da ikasleekin eskola-orduei lotutako gai ugariaren inguruan informazioa emateko (azterketak, bisitak, egin behar dituzten lanak...).	DBHko 1. mailatik aurrera, irakasleen % 20k, gutxienez, mezularitza-sistemaren bat erabiltzen du ikasleei ikasgelako hainbat gairi buruzko informazioa emateko (azterketak, bisitaldiak, lanak...).	DBHko 1. mailatik aurrera, irakasleen % 50ek, gutxienez, mezularitza-sistemaren bat eta ikasgelako agenda digitala erabiltzen du ikasleei ikasgelako hainbat gairi buruzko informazioa emateko (azterketak, bisitaldiak, lanak...).	DBHko 1. mailatik aurrera, irakasleen % 90ek hainbat webaplikazio erabiltzen ditu ikasleei ikasgelako hainbat gairi buruzko informazioa emateko (azterketak, bisitaldiak, lanak...).
	Ebaluazioa	Ebaluazioen emaitzen inguruko informazio guztia formatu digitalean eskuragarri dauden txantiloietan jasotzen da.	Ebaluazio-emaitzei buruzko informazio guztia, eta gainditu dutenen eta gainditu ez dutenen estatistikak (ehunekotan) txantilo digitaletan erregistratzen dira.	Ebaluazio-emaitzei buruzko informazio guztia, eta gainditu ez dutenen estatistikak (ehunekotan) ikastetxeko sarean kontsulta ditzakete irakasleek.	Emaitzei eta estatistikei buruzko informazioa Interneten bidez kontsulta dezakete irakasle, ikasle eta familiekin.

AZPI-PROZESUAK		1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA
IKASTALDI EDO AKADEMIA PROZESUKO KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA	Bertaratzeak eta buletinak	Familiei notak informazio digitalizatutik egindako dokumentuen bidez jakinarazten zaizkie.	Notak eta hutsegiteak buletin edo txosten digitalen bidez komunikatzen zaizkie familiei.	Notak eta hutsegiteak komunikazio digitaleko sistema baten bidez (esaterako, posta elektronikoa edo SMS bidez) komunikatzen zaizkie familiei. Sistema tradizionalak hartzaileak eskatzen duenean baino ez dira erabiliko.	Notei eta hutsegiteei buruzko informazioa sarbide mugatuko webaplikazio baten bidez eskura dezakete familiariek. Sistema tradizionalak hartzaileak eskatzen duenean baino ez dira erabiliko.
	Kexak eta iradokizunak	Ikastetxeak dokumentu bat du formatu digitalean kexak egiteko prozedura azaltzeko.	Ikastetxeak erreklamazioak egiteko prozedura azaltzen duen dokumentu bat du, eta, horrez gain, dokumentu-eredu bat edo batzuk ditu formatu digitalean eskura daitezkeenak.	Ikastetxeak erreklamazioak eta iradokizunak egiteko dokumentu bat du, eta ikastetxeko edozein ordenagailutatik eskura daiteke. Horrez gain, erreklamazioak edo iradokizunak egiteko beste dokumentu-eredu bat edo batzuk daude, ikastetxearen webgunetik eskura daitezkeenak.	Erreklamazioak eta iradokizunak egiteko prozedurari buruzko informazioa eskola-komunitatearen eskura dago Interneten bidez. Erreklamazioak eta iradokizunak on-line inprimaki bat erabiliz egin daitezke.
IKASTETXEKO KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA OROKORRA	Barne-komunikazioa	Ikastetxe barne-komunikazioa, hala nola, deialdiak, aktak, ekitaldiak, eta gainerakoak formatu digitalean egindako txantiloietan bidez gauzatzen da.	Ikastetxeko barne-komunikazioak (deialdiak, aktak, ekimenak...) mezularitza-sistema digital baten bidez egiten dira, bide tradizionalak ere erabili arren.	Ikastetxeko barne-komunikazioak (deialdiak, aktak, ekimenak...) mezularitza-sistema digital baten eta agenda digitalaren bidez egiten dira.	Ikastetxeko barne-komunikazioak (deialdiak, aktak, ekimenak...) hainbat web-aplikazioen bidez egiten dira.
	Kanpo-komunikazioa	Hezkuntza-komunitate eta beste erakundeetarako ikastetxeko kanpo-komunikazioa formatu digital baten bidez egiten da.	Hezkuntza-komunitateetarako eta beste erakunde batzuekiko ikastetxearen kanpo-komunikazioa webgunearen bidez egiten da; hala ere, betiko bitartekoak ere erabiltzen dira xede horretarako.	Hezkuntza-komunitateetarako eta beste erakunde batzuekiko ikastetxearen kanpo-komunikazioa posta elektronikoaren, agenda digitalaren eta webgunearen bidez egiten da.	Hezkuntza-komunitateetarako eta beste erakunde batzuekiko kanpo-komunikazioa bi modutan egiten da: alde batetik, bi noranzkoko komunikazioa egiteko aukera ematen duten web-aplikazio batzuen bidez (hau da, erabiltzaileen iruzkin eta ekarpenak jaso daitezke), eta bestetik, harpidetzen bidez.

3. ARLOA. PERTSONAK

Proiektuaren ardatz nagusia

Aipatu dugunez, MVC/IBE osatzen duen egituraren barruan, agian elementu bereizgarriena da azpiegiturei eta ekipamendu teknologikoei dagokien guztia heltzeaz gain, ikastetxeko prozesuekin lotutakoa ere barne hartzen duela; gainera, hirugarren esparru bat gehitu da, "pertsonek" izenekoa, eta garrantzi nabaria eman zaio gai horri. Hain zuzen ere, esparru horri ekingo diogu jarraian.

Pertsonek Ereduren motore eta protagonista nagusi eta faktore erabakigarriena bezala kokatu dira, izan ere, horien ekarpenik eta proiektuarekiko babes aktiborik gabe, ia-ia alferrikakoa izango litzateke, nahiz eta inbertitzeko eta bitartekoak eta baliabideak hornitzeko ikuspuntutik ahalgin handia egin.

Izan ere, KEko ikuspegi orokorretik pertsonei buruz hitz egiten dugunean, horiek duten garrantzi eta ahalmena oso handiak ditu, elkartutako 133 ikastetxeak sareari lotutako eta 8000 irakaslek osatzen duten giza-talde garrantzitsu batek babesten baititu, eta 90.000 ikasle eta 50.000 familia baino gehiagorengan eragina du.

Azken ikasturteetan bizi izan dugun esperientziak argi eta garbi erakutsi du konektibitatea, ekipamendua, programak eta baliabide digitalak beharrezkoak direla. Hala ere, ez dira nahikoak eta horiek soilik ez dute ikastetxeetako birtualizazioa eta ikas-irakaskuntzako prozesuen berrikuntza bermatzen.

Prozesu horretan konpromisoa hartu duten eta ikastetxe eta ikasgela bakoitzean IKTak curriculumean sartzeko benetako ardatza babestu duten pertsona horiek (zuzendaritza-taldea, IKT arduradunak, irakasleak, ikasleak, familiak,...) dira ingurune berri horretan gehien hitz egin eta eman dezaketanak.

Eta ikastetxeen birtualizazio prozesuan eragile aktibo gisa pertsona gehiago gehitu daitezten eta parte har dezaten nahitaezkoa da sostengua ematea eta zehaztasun nahikoz

**Prozesu horretan
parte hartzen
duten pertsonek
eta horien babes
irmoa dira IKTak
ikastetxe eta
ikasgela bakoitzean
sartzeko ardatza**

prestakuntza eta informazioa eskaintzea sentsibiliza daitezzen eta argiro uler dezaten zein den bere garrantzia eta lortu nahi diren hobekuntza-helburuak, IKTen babesarekin hasi nahi diren transformazio metodologikoaren eta berrikuntza pedagogikoaren bidez.

Zalantzarik gabe eremu horrek ardura berezi eta antolakuntza egoki bat eskatuko du, baina xede horretarako egindako ahaleginak soberan konpentsatuko ditu.

Beraz, MVC / IBE barruan “Pertsonak” izeneko arloari ikuspuntu zabal batetik heldu zaio eta eragin esanguratsua izan dezaketen aldagai ugari hartu dira kontan, hala nola honako hauek:

IBE-KO PERTSONEN ARLOA
3.1. Antolakuntza eta Koordinazioa
3.2. Irakasleen konpetentzia digitala
3.3. Ikasleen konpetentzia digitala
3.4. Prestakuntza eta ikastaldia
3.5. Berrikuntza eta transformazio metodologikoa
3.6. Komunikazioa eta parte-hartzea

Beste bi arloen antzera, gai bakoitzak duen garrantzia eta edukia zehazten dira eta, era berean, ebaluatzeko taula zehatz bat gehitzen da ikastetxeetan eta irakasleentzat baliaigarria izan dadin kokatu eta zehaztasunez esparru bakoitzean dituzten ahultasunak, indarguneak eta beharrak identifikatzeko. Hortaz, IKT Ekintza Planak diseinatuko dira ikastetxeko Hezikuntza Proiektuaren eta berrikuntza metodologikoari dagozkien ikuspegiaren eta xedeen baitan.

3.1. Antolakuntza eta Koordinazioa

Sarrera

Birtualizazio prozesu bat gauzaterakoan, badira zenbait faktore erabakigarri eta, kontuan hartzen ez badira, oso zaila bilakatzen da benetan IKTak integratzeko proiektu bat garatea ikastetxe batean.

Faktore horien artean, antolakuntza eta koordinazioari buruzkoa funtsezko euskarritzat hartzen da eta horien baitan sostengatzen dira prozesu osoaren diseinua, sustapena, dinamizazioa eta ebaluazioa.

Horrenbestez, beharrezkoa iruditu zaigu proiektu osoan zehar eginkizunaren arabera honako eragile eta organu erabakitzailerik hauei eremu zehatz bat eskaintzea:

1. Zuzendaritza taldea
2. IKT koordinatzailea
3. IKT batzordea



Zuzendaritza taldeari eta IKT koordinatzaileari dagokienez, ez dirudi beharrezkoa denik birtualizazio prozesuan duten parte-hartzea eta bertan bete behar duten eginkizuna sakontzea.

Hala eta guztiz ere, interesez gain iruditzen zaigu IKT batzordearen inguruko aipamen berezi bat egitea, ikastetxe gehienetan alor berri bat izan arren gure ustez oso garrantzitsua baita. Ikastetxeren batean ez badago, gomendagarria da sortzen hastea eta IKT Antolakuntza eta Koordinazio esparruko parte izatea.

Komeni da partaideek, ahal den neurrian, ikastetxeko hezkuntza-komunitatea osatzen duten gizatalde guztiak ordezkatzea (zuzendaritza taldea, irakasleak, ikasleak eta familiak), izan ere, horien ekarpena oso onuragarria izan daiteke ikastetxeko birtualizazioa denek ulertzen eta partekatzen duten helburu bat izatea lortzeko asmoz.

Horretarako honako puntu hauek betetzea komeni da:

- Nolabaiteko erregularitasun eta maiztasunez biltzea (hilero bilera bat egitea maiztasun egokia izan daiteke).
- IKT koordinatzaileak bilerak antolatzea eta dinamizatzea.
- Bilera aurretiaz definitutako eta parte-hartzei banatutako gai-zerrendan oinarrituta gauzatzea.
- Bilera bakoitza amaitu ondoren akta bat egitea, adostutako akordioak jaso eta horiek bete diren jakiteko segimendu bat egiteko erreferentzia izan dadin.

Horrela jarduten duen kolaboratzaile-talde batek kanal egoki bat edukitzeko eta horren bidez honako hauek lortzeko aukera emango du:

- Prozesuan zehar ematen diren kezka jasotzea, zailtasunak detektatzea eta aurrerapenak erregistratzea, nolabaitean eguneroko dinamikan ikas-irakaskuntza hobetzeko estrategia berriak sartzen diren eta IKT Ekintza Planeko ekintzak gauzatzen diren heinean.
- Sortu daitezkeen beharrak eta aurkeztu daitezkeen aukera berriak identifikatzea, hasieran marraztutako ibilbidea gertaera berrien arabera moldatzeko asmoz.

Horretarako, gomendagarria da kideak nolabaiteko profil berritzailea eta komunikatzailea duten pertsonak izatea, IKT eta/edo hezkuntza-hobekuntza jarduerak ezagutzen eta birtualizazioaren bidetik aurrera egiteko eta sakontzeko beharra eta bizikidetzaren onartzen dutenak.

Ebaluazio-taula interpretatzeko gakoak:

Jarraian ikus daitekeen ebaluazio-taula horretan, birtualizazio prozesuan pausu sakonak eman ahala antolakuntza eta funtzionamendu operatiboaren arabera ikastetxeek bizi beharreko eboluzioa jaso nahi izan da.

ZUZENDARITZA TALDEARI dagokionez, arreta berezia eman diegu honako atal hauei:

- IKT Ekintza Plan bat izatea edo ez; edukiz gero horren gauzatzea; ikastetxeko beste planen arabera izandako integrazioa; ikastetxeko zenbat kidek ezagutzen duten eta azkenik, ezarritako ebaluazio- eta berrikuste-mekanismoak.
- IKT Ekintza Plan hori garatzeko pertsona jakin batzuen izendatzea eta zuzendaritza taldeak horiekin duten harremana.
- Lan-taldeak sortzea eta plan horren diseinuari, dinamizazioari eta ebaluazioari buruz egotzi zaizkien eginkizunak.

Birtualizazio prozesu guztietan, beharrezkoa izaten da **IKT KOORDINATZAILE** bat edukitzea. Hezkuntza esparruan nahiko berria den ardura funtzionala da eta horren arabera honako hauek zehazten saiatu gara:

- IKT Koordinatzailea izatea edo ez, ikastetxe guztiek ez baitute organigrama barruan sartzen.
- IKT Ekintza Planaren garapenean bete behar duen eginkizuna definitzea eta ardurak egokitzea.
- Beste ikastetxeetako IKT dinamizatzaileekin betetzen duen lankidetzaren eta sareko lana.

Hala ere, oso konplexua izango litzateke prozesu handi hori gauzatzea Zuzendaritza Taldeak eta IKT Koordinatzaileak ez badira Hezkuntza Komunitate osoaren kezkek adierazten diren lan-talde batean oinarritzen eta ez badute talde hori osatzen duten pertsonak egindako ekarpenak hobetzeko esfortzua egiten.

Kristau Eskolako MVC/IBEren barruan laguntza-talde hori **IKT BATZORDEA** izendatu dugu eta hauxe aztertu dugu horren inguruan:

- Osaketa; zenbat kidek osatzen duten eta Hezkuntza Komunitateko zein talderi dagokion.
- Biltzeko aldizkakotasuna, horren inguruan gauzatutako lan-dinamika bizirik mantentzeko asmoz.
- IKT Ekintza Planaren eboluzioari eta garapenari dagokion segimendua: aurreikusitako jarduerak martxan jartzeko erritmoa; aldaketa posibleen sartzea; aldizkako ebaluazioaren prozedura.

Antolakuntzaren eta koordinazioaren ebaluazio-taula:

PERTSONAK/ ORGANO ERABAKITZAILEAK		1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	5. MAILA
ZUZENDARITZA TALDEA	IKT Ekintza Plana	Ikastetxean ez dago zehaztutako IKT ekintza plan bat.	Zuzendaritza Taldeak irakasle bakoitzak egindako IKT ekintzak babesten ditu.	Ikastetxean IKT Ekintza Plan bat eratu da.	Ikastetxean IKT Ekintza Plan bat garatzen ari da	Ikastetxean IKT Ekintza Plan bat garatzen ari da
	Planaren ezagutza ikastetxean			Ikastetxeko langileek ezagutzen dute.	Hezkuntza-komunitateak ezagutzen du.	Beste ikastetxeek ezagutzen dute.
	Planaren integrazioa ikastetxean			Ez dago ikastetxeko planen edo bestelako dokumentu estrategikoen barruan.	Ikastetxeko planen eta bestelako dokumentu estrategikoen barruan dago.	Ikastetxeko planen eta bestelako dokumentu estrategikoen barruan dago. Mugikorrei eta gailu elektronikoei buruzko araudia moldatu du
	IKT Ekintza Planaren berrikustea			Zuzendaritza Taldeak urtero berrikusten du.	Hiru hilez behin berrikusten da IKT Batzordean errealitate berriei moldatzeko.	Hiru hilez behin berrikusten da IKT Batzordean errealitate berriei moldatzeko
	Lan-taldean eta horiek garatzeko pertsonen izendapena	Ez da inor izendatu IKTen koordinazioaren eginkizuna betetzeko.	Zuzendaritza Taldeak IKT Koordinatzaile bat izendatu du.	Zuzendaritza Taldeak IKT Batzorde bat sortu du eta ikastetxeko langileek osatzen dute.	Zuzendaritza Taldeak IKT Batzordeko kideen osaketa handiagotu du eta hezkuntza-komunitate osoa sartu du.	Zuzendaritza Taldeak IKT Batzordeko kideen osaketa handiagotu du eta hezkuntza-komunitate osoa sartu du.

PERTSONAK/ ORGANO ERABAKITZAILEAK		1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	5. MAILA
IKT KOORDI- NATZAILEA	Funtzioen eta arduen definizioa		Ez ditu definituta rolak eta funtzioak.	- Ongi definituta ditu rolak eta funtzioak. - IKT Planaren gauzatzean parte hartu du. - IKT Batzordea dinamizatzen, antolatzen eta kudeatzen du.	- IKT Ekintza Plana garatzeaz arduratzen da. - IKT Batzordea dinamizatzen, antolatzen eta kudeatzen du. - KEko beste ikastetxeetako IKT Koordinatzaileekin harremana du.	- IKT Ekintza Plana garatzeaz arduratzen da. - IKT Batzordea dinamizatzen, antolatzen eta kudeatzen du. - KEko beste ikastetxeetako IKT Koordinatzaileekin batera ekimenak garatzen ditu.
	Kideak	Ez dago inolako IKT Batzorderik.	Hasierako lan-talde bat sortu da eta honako hauek osatzen dute. - Zuzendaritza Taldeko kideren bat. - IKT Koordinatzailea	Ikastetxeko langileek osatzen dute: - Zuzendaritza Taldeko kideren bat. - IKT koordinatzailea - Etapa/ziklo ezberdinetako irakasleak - AZLko kideren bat.	Hezkuntza-komunitateak osatzen du: - Zuzendaritza Taldeko kideren bat. - IKT koordinatzailea - Etapa/ziklo ezberdinetako irakasleak - AZLko kideren bat. - Irakasleak (DBHko 1. mailatik aurrera). - Familiak	Hezkuntza-komunitateak osatzen du: - Zuzendaritza Taldeko kideren bat. - IKT koordinatzailea - Etapa/ziklo ezberdinetako irakasleak - AZLko kideren bat. - Irakasleak (DBHko 1. mailatik aurrera). - Familiak
IKT BATZORDEA	Aldizkakotasuna		Ez dute koordinazio-bilerak egiteko aldizkakotasuna finkaturik	Bi hilez behin biltzen dira.	Hilean behin biltzen dira.	Hilean behin biltzen dira.
	IKT Ekintza Planaren segimendua			Ez da garapenaren inguruko segimendua sistematizatua egiten.	Hiru hilez behin dagokioen segimendua egiteko ebaluazio-adierazle zehatzak sortu dira.	Hiru hilez behin dagokioen segimendua egiteko ebaluazio-adierazle zehatzak sortu dira.

3.2. Prestakuntza:

Sarrera

“Pertsonak” arloan oso paper garrantzitsua eman zaio irakasleen prestakuntzari, oinarri sendoak ezarri eta horien gainean ikastetxeen birtualizazioa eraikitzeke gako bat baita.

Irakasleak IKTen arabera trebatzea egiturazko tresnatzat hartu behar da, aurrera egiteko eta birtualizazio ibilbide bakoitzean ezarritako helburuak lortzeko, eta apustu metodologikoa, abiadura, profilak eta hainbat behar barne hartzen dituen neurrira egindako diseinu baten bidez.

Modu egokian antolatutako IKTen araberako trebakuntzak hezkuntza-eredu batetik bestera transizio ordenatua eta eraginkorra gauzatzeko balio behar du eta ingurune digitalaren arabera irakasleek eta ikasleek eginkizun berriak hartzen joan daitezten.

Ondorioz, nahitaezkoa da IKTen indarrean nagusitutako formakuntza bat gauzatzeko apustua egitea, hezkuntza hobetzeko tresna baten antzera eta eremu digitalean gaituak diren irakasleak lortu ahal izateko.

Garrantzitsuena da prestakuntza prozesuaren bidez irakasleek eguneroko jardueretan IKTak erabiltzeko ohitura hartzea eta horien erabilgarritasuna ulertzea: zer-nolako arazoak konpontzen lagundu diezaketen eta zer-nolako hezkuntza-esperientzia berriak martxan jarri ditzaketen.

Prestakuntza-estrategia bat, ikastetxeen birtualizazio prozesuan laguntzeko:

Helburu hori lortzeko, beharrezkoa da ondo antolatutako, mailaz mailakako eta irakasle guztiei errealitate berri horretara pixkanaka hurbiltzeko aukera ematen duen prestakuntza-estrategia bat diseinatzea, hau da, trebakuntza digitaleko aurrerapena ahalik eta kolektiboena izateko eta banakako soldata-erregimen gehiena aplikatzea saiesteko.

Prestakuntza-estrategia horretan lehenetsia eman beharko zaio pixkanaka ematen diren pausu berriak finkatzeari; horretarako, aliatu onena da eguneroko curriculumari lotutako hezkuntza-praktika berritzaileak modu progresiboan sartzea eta horrek birtualizazioa ikastetxe bakoitzeko hezkuntza komunitate osoak eta familiek onartutako proiektu bat izatea ekarriko du.

Horrela antolatutako eta etorkizun zabala, malgua eta doigarria duen konponbide bat diseinatzeke aukera ematen duen prestakuntzak bermatuko du birtualizazio prozesuan erdibidean geratzeak sor dezakeen frustrazioa saihestea.

Prestakuntza-taula interpretatzeko gakoak:

Prestakuntza esparruari dagokion ebaluazio-taula gauzatzekoan, berriki egindako **“Estrategia formativa de apoyo al proceso de virtualización de los centros de KE”** taulan oinarritu gara eta bertatik arlo horretan ikastetxeak jasan beharko lukeen eboluzioa atera dugu.

Horrela, ebaluazio-taula horren barruan honako 4 atal hauek bereizi ditugu:

1. Plangintza
2. Parte-hartzea eta lankidetzatza
3. Segimendua
4. Ebaluazioa

Horietako bakoitzean, arreta hainbat itemetan jarri dugu eta IBEren arabera bereizitako 5 maileri dagozkien aurreratzea markatu dugu. Hain zuzen ere, 4 multzoetako bakoitzean arreta honako hauei jarri diegu:

1. Plangintza:

a) Prestakuntza-plana, honi buruzkoa:

- Aldez aurretiko beharren inguruko diagnostiko batean oinarritu den edo bat-batekoa den.
- Nori zuzentzan zaion (irakasleak ez diren langileak, irakasleak, familiak)

b) Denbora eta baliabideen esleipena, egutegiak eta ordutegiak antolatzerakoan prestakuntza-jardueren garapenari eskaini behar zaion baliabideak eta denbora aurretiaz barne hartzen dituen neurrian.

c) Prestakuntza-jardueren eredua, modalitate-sorta aurrez aurreko formatu tradizionaletik haratago irekitzeko eta aurrez aurreko saioak online edo bestelako prestakuntzekin

konbinatzeko. Formatu berriak ere jasotzen dira, hala nola barnetegi “teknologikoak” edo hezkuntza komunitate osoari zuzendutako prestakuntzak.

2. Parte-hartzea eta lankidetzak:

a) Prestakuntza-taldeen osaketa, taldeak osatzeko ardura duten pertsonak aipatzea; prestakuntza-jarduera batzuetan eta besteen parte hartzen duten pertsonak eta aplikatu behar diren irizpideak erabakitzea.

b) Prestakuntza-jardueretako lankidetzak, irakasteko modalitate ugarien arteko bereizketa egitea: pertsonen edo kanpo-entitatearen bidezko eredu tradizionala; barne-jardueren edo ikastetxeko langileen eta kanpoko pertsonen arteko eredu mistoen garapena, eza-gutza hori beste ikastetxeekin ere partekatze aukera izanik.

3. Segimendua: ikasgelan ikasitakoa gauzatzeari buruzkoa eta beste kideekin zein neurritan partekatzen den araberakoa.

4. Ebaluazioa: prestakuntza-jarduera berari buruzkoa, etengabe hobetzeko irizpideak aplikatzeko eta ondorengo prestakuntza-jarduerak planifikatzeko informazio baliotsuaz hornitzeko asmoz.



Prestakuntzaren ebaluazio-taula:

EBALUATU BEHARREKO ESPARRUAK		1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	5. MAILA
PLANGINTZA	Prestakuntza Plana *	Prestakuntza-ekintzak definitzerakoan, ez da aurretiaz beharren inguruko diagnostiko bat egiten.	Prestakuntza beharren diagnostikoa etapa bakoitzeko koordinatzaileen eta ZTKo kideen artean galdeketa bat egiten da.	Beharren inguruko diagnostiko bat egiten da irakasleen eta ikastetxeko beste langile guztien artean, eta IKT prestakuntza-plana definitzeko jarraibide gisa balio dezake.	Irakasle eta ikastetxeko langile guztien artean egindako diagnostikoa IKT Ekintza Planean ezartzen diren jarduera ildoekin lotzen da.	Beharren inguruko diagnostikoa familien artean ere egiten da, interesekoak izan daitezkeenei buruzko galdeketa edo inkestaren bidez.
	Balibideen eta denboraren esleipena	Ez zaio IKT prestakuntzari denbora jakin bat esleitzen.	Beharrezkoak diren denbora eta baliabideak modu inprobisatuan esleitzen dira.	IKT prestakuntzari baliabide eta denbora jakin bat esleitzen zaio.	Baliabideak eta denbora IKT Ekintza Plana martxan jarri eta bertatik datozen beharren arabera esleitzen da.	Familientzat ere denbora eta baliabideak esleitzen dira.
	Prestakuntza-ekintzen eredia	Ikastetxean prestakuntza ekintza presentzialak eta tradizionalak soilik gauzatzen dira.	Prestakuntza ekintza presentzialak, online errefortzuarekin, garatzen dira bai ikastetxean bai kanpoan ere.	Prestakuntza ekintza presentzialak, online errefortzuarekin, edo alderantziz, garatzen dira bai ikastetxean bai kanpoan ere.	Online prestakuntza ereduak garatzen dira, eta errefortzu presentziala dute, erakunde ezberdinek (barnetegia teknologikoak, ikastetxeen arteko ekitaldiak, etab.) eskaini ditzaketen formatu berriez gain.	Online prestakuntza ereduak garatzen dira, eta errefortzu presentziala dute, erakunde ezberdinek (barnetegia teknologikoak, ikastetxeen arteko ekitaldiak, etab.) eskaini ditzaketan formatu berriez gain. Hezkuntza-komunitate osoak (irakasleak ez diren langileak, irakasleak, ikasleak eta familiak) parte hartzen duten prestakuntza ereduak martxan jartzen dira.

*Prozesuen alorreko ebaluazio-taulako 1.12 (Prestakuntza Plana) atalarekin bat datorren itema.

EBALUATU BEHARREKO ESPARRUAK		1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	5. MAILA
PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA	Prestakuntza ekintzetako parte-hartzea	Ez dago zehaztuta ikastetxeko langileek prestakuntza -ekintzetan duten parte-hartzearen araberako irizpiderik.	Hezkuntza etapa bakoitzaren denbora eta ordutegien esleipenaren arabera zehazten dira prestakuntza-ekintzetako parte-hartzea.	Irakasleek adierazitako prestakuntza-beharren arabera erabakitzen da prestakuntza-ekintzetako parte-hartzea.	Ikastetxeko IKT Ekintza Planean adierazten diren proiektuetan irakasleek duten parte-hartzearen eta modu egokian garatzeko azaldu-tako formakuntza ekintzen arabera zehaztzen dira prestakuntza-ekintzetako parte-hartzea.	Ikastetxeko IKT Ekintza Planean adierazten diren proiektuetan irakasleek duten parte-hartzearen eta modu egokian garatzeko azaldu-tako prestakuntza-ekintzen arabera zehaztzen dira prestakuntza-ekintzetako parte-hartzea. Prestakuntza-ekintzetan familiek duten parte-hartzea proiektua garatzeko bete dezaketen funtzioaren arabera da.
	Prestakuntza ekintzetan parte-hartzea	Prestakuntza-ekintzak eskolaz kanpoko pertsona edo erakunde batek ematen ditu.	Prestakuntza-ekintzak eskolaz kanpoko pertsona edo erakunde batek ematen ditu.	Prestakuntza-ekintzak eskolaz kanpoko pertsona edo erakunde batek ematen ditu.	Ikastetxeko hainbat irakaslek aurreikusitako prestakuntza -ekintzetan (barne praktika egokiak) irakasle gisa parte hartzen dute, kanpoko pertsonen edo erakundeen babesarekin.	Ikastetxeko hainbat irakaslek prestakuntza-ekintzetan irakasle gisa parte hartzen dute, kanpoko pertsonen edo erakundeen babesarekin. Hainbat irakaslek beste ikastetxeei zuzendutako prestakuntza-ekintzetan (eskolen arteko praktika egokiak) parte hartzen dute kanpoko pertsonen edo erakundeen babesarekin.

EBALUATU BEHARREKO ESPARRUAK		1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	5. MAILA
SEGIMENDUA		Ez da ikasitakoaren inguruko segimendurik egiten.	Prestakuntza-ekintzetara joatearen eta/edo parte hartzearen inguruko segimendu bat egiten da.	Sei hilez behin, Zuzendaritza Taldeak klaustroari prestakuntza planaren urteko balantzea aurkezten dio.	Prestakuntza-ekintzetan parte hartzen dutenek egunero ikasitakoa praktikoki aplikatzen dakitela erakutsi behar dute.	Prestakuntza-ekintzetan ikasitakoa beste kideekin partekatzen da eta partaide guztiek ikastetxearen eskura jartzen dituzte. Era berean, sare profesionaletan edo esperientziak trukatzeko lekuetan partekatzen dira.
EBALUAZIOA		Prestakuntza-ekintzen asetze mailaren inguruko ebaluazioa egiten da.	Prestakuntza-ekintzen asetze mailaren inguruan egiten den ebaluazioa hurrengo prestakuntza planifikatzeko erreferentzi hartzen da.	Ikastuaratearen inguruko banakako ebaluazioaren eta horrek birtualizazio prozesuan duen eraginaren inguruko ebaluazio globala egiten dira.	Egindako prestakuntza-ekintzen ebaluazioa ikastetxeko IKT Ekintza Planean sartzen da eta, ondorioz, bertako ebaluazio-tresna horien arabera egiten da.	Egindako prestakuntza-ekintzen ebaluazioa ikastetxeko IKT Ekintza Planean sartzen da eta, ondorioz, bertako ebaluazio-tresna horien arabera egiten da. Familiei zuzendutako prestakuntza-ekintzen gaineko ebaluazio bat ere egiten da.

3.3. Ikasleen kompetentzia digitala

Sarrera

Zertan datza kompetentzia digitala?

Laburki esanda, definizio adostuenak honako hau dio:

“Gaitasun digitala edo gaitasun digitala eskuratze trebetasun eta abilezia batzuk garatzea da, informazioa bilatzeko, hautatzeko, erregistratzeko eta lantzeko edo aztertzeko teknika eta estrategia ezberdinak erabiliz esku artean ditugun iturburu edo euskarriaren arabera (ahozkoa, inprimatua, ikus-entzunezkoa, digitala edo multimedia).”

Orobat, sortzen diren arazo operatibo oinarrizkoenak eta ohikoenak identifikatzeko eta konpontzeko gaitasuna edukitzea dakar, irakasleen eta ikasleen eskura dauden baliabide teknologikoak eskuarki erabiltzeko eta, agertu ahala edo ikas-irakaskuntzarako baliagarritasunaren arabera, informaziorako eta berrikuntza teknologikorako iturburu berriak ebaluatzeko eta aukeratzeko gai izateko.

Laburbiltzeko, informazioa eta kompetentzia digitala lantzeko pertsona autonomoa, eraginkorra eta arduratsua izan behar da informazioa eta horien iturburu hautatzeko, tratatzeko eta erabiltzeko orduan, baita horretarako eduki daitezkeen tresna teknologiko ugariekin ere.

Era berean, jarrera kritikoa eta gogoetatsua garatu behar da eskuragai dugun informazioa baloratzeko, beharrezkoa denean egiaztatzeko eta gizartean adostutako jarrera-arauak euskarri ezberdinetan informazioaren eta horien iturburuaren erabilera arautzeko.

Horiek horrela, ikas-irakaskuntzan laguntza eta euskarri gisa IKTak erabiltzeko gaitasun nahikoa edukitzeak dakar erabiltzen jakitea potentzial eta etekin handiena ateratzeko duten bi funtzioen arabera: informazioa helaraztea eta ezagutza-belaunaldia erraztea.

**Soilik IKTek
hezkuntza prozesuetan
hobekuntzarik bermatzen
ez dutenez, nahitaezkoa da
ikas-irakaskuntzako eredu
berriak sartzeari horiek
eskaintzen dizkiguten
aldaketa metodolikez
etekin handiena ateratzeko**

Baina, informazioa edukitzeak ez duenez automatikoki ezagutza sortzen, informazioa eza-gutzan bilakatu ahal izateko norberaren lan pertsonalaren eta taldeko lanaren bidez modu kritikoan antolatzeak, lotzeak, laburtzeak eta analizatzeko abileziak eduki behar dira, gero eta zabalagoak diren ingurune fisikoak eta sozialak ezagutzeko eta erlazionatzeko.

Horregatik, beharrezkoa da oinarrizko hizkuntza espezifikoak (testuen, zenbakien, ikonoen, ikusmenaren, grafikoaren eta soinuaren araberakoak) menderatzea, eta informazio ugarien iturburuak, aukerak eta lokalizazioa beste hainbat egoera eta testuinguruetan aplikatzen jakitea, baita transmititzeko erabili ohi diren euskarri ohikoenak ezagutzea ere.

Gainera, soilik IKTek hezkuntza prozesuetan hobekuntzarik bermatzen ez dutenez, nahitaezkoak dira irakasleentzako eredu berriak sartzeko horiek eskaintzen dizkiguten aldiak eta metodolokoez etekin handiena ateratzeko.

“Ez du zentzurik ikasleak gailu eta programa informatikoak, Interneten sartzeko, informazioa eta komunikazioa bilatzen, eta besteekin komunikatzen ikasteko gaitasunak, ez bada ikasleak bere kabuz ezagutza sortu eta eskuratzeko prozesuan teknologia berriak erabiltzen dituzten eguneroko jardueren bidez.”

Dena den, aipatu duguna alde batera utzita, kontua ez da IKTak handiestea eta gainontzeko guztia baztertzeko. Kontuan hartu behar da IKTak beti irakasleentzako eta ikasleentzako zerbitzura dauden bitartekariak direla, eta ez dira sistematikoki erabili behar, baizik eta irizpide eta erabilgarritasunaren arabera.

Nola sartu dugu atal hori IBEn?

Ikastetxeen Birtualizazio Ereduak ez luke bere xedea beteko bertan irakasleentzako gaitasun digitalaren aurreratzearen inguruko segimendua aurreikusiko ez balitz, adierazi berri dugun bezala, ikasgelan eta bertatik kanpo IKTak sartzeko prozesua ardatz nagusi horien gainetik eraiki behar baita.

Alor horren garrantzia ezagutzen dugunez, egokia iruditu zaigu gai horren inguruan baliozko erreferentziak izan daitezkeen beste erakundeek egindako lana alde aurretik analizatzea.

Zehazki, helburu horretarako honako erakunde hauek garatutako modalitateetan ardaztu gara:

- **Intef** (teknologia hezitzaileetarako eta irakasleen prestakuntzarako insitutu nazionala)
- **IKANOS** (Eusko Jaurlaritzak sustatutako gaitasun digitalen gaineko Europako esparrua ezagutarazteko eta Euskadin ezarpena bultzatzeko proiektua da, baita ikasbide berriak eta ziurtatze-sistemak zabaltzeko ere.)

Era berean, bi erakunde horiek gaitasun digitalen gaineko europako esparruko eredutik abiatu dira, DIGCOM proiektuaren oinarritik garatuta.

Hortaz, irakasleen gaitasun digitalaren inguruko taula osatzerakoan, erakunde horiek gaitasun-eremuan bereizten dituzten 5 ardatzak errespetatu ditugu:

- **Informazioa:** informazio digitala identifikatzea, lokalizatzea, berreskuratzea, biltzea, antolatzea eta analizatzea, duen hezkuntza-helburua eta kurrikuluaren garrantzia ebaluatzen.
- **Komunikazioa:** ingurune digitaletan komunikatzea, online tresnen bidez hezkuntza-baliabideak partekatzea, konektatzea eta beste hezkuntza komunitateko irakasleekin eta kideekin elkarlanean aritzea tresna digitalen bidez, komunitate eta sare profesional hezitzaileetan parte-hartzea.
- **Ezagutzen sorkuntza:** Ezagutza berriak (testuak, irudiak, bideoak...) sortzea eta editatzea, aurreko ezagutzak eta edukiak osatzea eta berriro lantzea, arte-produkzioa, multimedia-edukia eta informatika-programazioak gauzatzea, jabetza intelektuala eta erabilera-lizentzia aplikatzen jakitea.
- **Segurtasuna:** babes pertsonala, datu pertsonalen babesa, identitate digitalaren babesa, segurtasunaren erabilera, erabilpen segurua eta iraunkorra, ikaslearen identitate digitalaren inguruko aholkularitza.
- **Arazoen konpontzea:** behar eta baliabide digitalak identifikatzea, tresna digital egokia hautatzerakoan eta helburuarekin edo beharrarekin bat datozen erabakiak hartzea, bi-tartekari digitalen bidez kontzeptuzko arazoak konpontzea, arazo teknikoak konpontzea, teknologia sormenez erabiltzea, norberaren eta besteen gaitasuna eguneratzea.

Gaitasunen araberako arlo bakoitza hainbat azpi-gaitasunetan zatitzen da eta honako hau da horren emaitza:

GAITASUNA	AZPI-GAITASUNA
1. INFORMAZIOA	1. Informazioa esploratzea, bilatzea eta filtratzea
	2. Informazioa ebaluatzea
	3. Informazioa biltzea eta berreskuratzea
2. KOMUNIKAZIOA	4. Hezkuntza-komunitatearekin eta lankideekin elkar eragitea teknologia berrien bidez.
	5. Hezkuntza-komunitatearekin eta lankideekin informazioa eta edukiak partekatzea
	6. Irakasle roletik herritarrek online parte hartzea
	7. Kanal digitalen bidez elakerrkin lanean aritzea
	8. Netiketa (Interneten portaera egokia edukitzea))
3. EDUKIEN SORKUNTZA	9. Identitate digitala kudeatzea
	10. Edukiak garatzea
	11. Integratzea eta berriz gauzatzea
	12. Egile-eskubideak eta lizentziak

GAITASUNA	AZPI-GAITASUNA
4. SEGURTASUNA	13. Gailuak babestea
	14. Datu pertsonalak babestea
	15. Osasuna babestea
	16. Ingurunea babestea
5. ARAZOEN KONPONTZEA	17. Arazo teknikoak konpontzea
	18. Behar eta erantzun teknologikoak identifikatzea
	19. Berrikuntzak sartzea eta teknologia modu sortzailean erabiltzea
	20. Gaitasun digitaletan dauden hutsuneak identifikatzea

Azpi-gaitasun bakoitzerako, INTEF eta IKANOS erakundeek ezarritako parametroen arabera, hiru maila ezberdintzen dira eta horien bidez irakasleek bakoitzean egindako aurrerapena adierazi daiteke:

GAITASUNEN GAINEKO ARLOAK	AZPI-GAITASUNA	GARAPEN MAILAK / INTEF	AUTOEBALUAZIOA / IKANOS
5 EREMU	20 AZPI-GAITASUN	OINARRIZKOA	0-4
		ERDI-MAILAKOA	4-6
		AURRERATUA	6-10

Ebaluazio-taula interpretatzeko gakoak:

Irakasleen gaitasun digitalaren inguruko taula osatzeko, IKANOS erakundeak ezarritako formatua jarraituta KEko 50 ikastetxek baino gehiagok gauzatutako autoebaluazioaren azken emaitzetatik abiatzeko aukera izan dugu.

Ikastexe kopuru handi horrek emandako erantzunak edukitzeak aukera eman digu nahiko eredu adierazgarri batetik abiarazteko, jasotako erdi-balioak irakasleen gaitasun digitalaren arabera sareko ikastetxeen egoeraren adierazgarri fidagarriak baitira.

Egoera horretan, INTEF eta IKANOS erakundeek adierazitako azpi-gaitasun digital bakoitzeko 3 maila posibleetatik Ikastetxeen Birtualizazio Ereduan ezartzen diren 5 birtualizazio mailetara igaro gara, estrapolaziorik edo baliokidetasun automatikorik egin gabe, baizik eta taula KEko ikastetxeetako errealitatera egokitu dugu honako irizpide hauei jarraiki:

Hasteko hipotesi gisa baliokidetasunezko eskema hau hartu da:

EREDUA	BALIOKIDETASUNA				
MVC/IBE MAILAK	1 Hasierakoa	2 Oinarrizkoa	3 Erdi-mailakoa	4 Aurreratua	5 Bikaintasuna
INTEF / IKANOS baliokidetasun maila	Oinarrizkoa	Erdi-mailakoa	Erdi-mailakoa	Aurreratua	Aurreratua

Baina, ikastetxe bakoitzean azpi-gaitasun bakoitzeko maila jakin bat lortu beharko luketeen irakasleen ehunekoa ezartzerakoan, kontuan hartu ditugu IKANOS autoebaluazioko emaitzak eta bertan garbi ikusi daiteke 20 azpi-gaitasun bakoitzeko batez besteko iritzi jartzea nabarmen aldatzen dela, horien konplexutasunari eta zailtasunari dagokion ezberdintasuna dela-eta.

Beraz, ikastetxeei eskatzen zaien ehunekoaren arabera irizpide bikoitza ezarri dugu, honako arlo hauen baitan:

1. Irakasleen gaitasun digitalaren autoebaluazioan adierazten diren azpi-gaitasunen batez besteko globalaren azpitik kokatzen da azpi-gaitasunen batez besteko balioa:

MVC / IBE MAILAK				
1	2	3	4	5
AZPI-GAITASUNA				
Irakasleen % 30 baino gutxiago ez da oinarritzko mailara iristen...	Gutxienez irakasleen % 40 erdi-mailara iristen da...	Irakasleen % 60 erdi-mailara iristen da...	Gutxienez irakasleen % 30 maila aurreratura iristen da...	Irakasleen % 50 maila aurreratura iristen da...

2. Irakasleen gaitasun digitalaren autoebaluazioan adierazten diren azpi-gaitasunen batez besteko globalaren gainetik kokatzen da azpi-gaitasunen batez besteko balioa:

MVC / IBE MAILAK				
1	2	3	4	5
AZPI-GAITASUNA				
Irakasleen % 40 baino gutxiago ez da oinarritzko mailara iristen...	Gutxienez irakasleen % 50 erdi-mailara iristen da...	Gutxienez irakasleen % 70 erdi-mailara iristen da...	Gutxienez irakasleen % 40 maila aurreratura iristen da...	Irakasleen % 60 baino gehiago maila aurreratura iristen da...

Eta azkenik, ikastetxeek ehuneko horien arabera MVC/IBE maila jakin batzuk lortu arren, ez dugu gure ikuspuntua galdu behar, nahiz eta datu globalak eduki, zentzuzkoena baita ikastetxetxe berean gaitasun digitalari dagokionez erritmo eta maila oso desberdinak dituzten irakasleak elkarrekin aritzea eta hori izan beharko litzakete lanketa egokiaren xedea.

Gaitasun digitalaren ebaluazio-taula:

OHARRA: Progresioa ebaluatzerakoan maila bat eskuratzek aurrekoa ere gainditua duela esan nahi du

GAITASUNA	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	5. MAILA
1. INFORMAZIOA	INFORMAZIOA ESPLORATZEA, BILATZEA ETA FILTRATZEA				
	Irakasleen % 40 baino gutxiagok informazio esploratzea, bilatzea eta filtratzea bezalako oinarrizko eginkizunak egiten ditu.	Gutxienez irakasleen % 50ak modu egokian nabigatzen du eta informazioa bilatu eta iragazten du.	Gutxienez irakasleen % 70ak modu egokian nabigatzen du eta informazioa bilatu eta iragazten du.	Gutxienez irakasleen % 40ak modu aurreratuan nabigatzen, eta informazioa bilatu eta iragazten du.	Gutxienez irakasleen % 60ak modu aurreratuan nabigatzen, eta informazioa bilatu eta iragazten du.
	INFORMAZIOA EBALUATZEA				
	Irakasleen % 40 baino gutxiago jakitun da aurkitutako informazioa ebaluatu behar dela.	Gutxienez irakasleen % 50ak informazioaren inguruko konparaziozko ebaluazio bat egiten du.	Irakasleen % 70 baino gehiagok informazioaren inguruko konparaziozko ebaluazioa egiten du.	Gutxienez irakasleen % 40ak aurkitutako informazioaren balioa eta egiazkotasuna frogatzen du.	Gutxienez irakasleen % 60ak aurkitutako informazioaren balioa eta egiazkotasuna frogatzen du.
1. INFORMAZIOA	INFORMAZIOA BILTZEA ETA BERRESKURATZEA				
	Irakasleen % 40 baino gutxiagok badaki nola gorde behar diren artxiboak eta edukiak (adibidez, testuak, irudiak, musika, bideoak eta web-orriak) eta nola berreskuratu ditzakeen gordetako edukiak.	Gutxienez irakasleen % 50ak badaki nola gorde, bildu edo etiketatu behar diren artxiboak, edukiak eta informazioa, eta bakoitzak biltzeko bere estrategia du. Gordetako edo bildutako informazioa eta edukiak berreskuratu edo kudeatu ditzake.	Gutxienez irakasleen % 70ak badaki nola gorde, bildu edo etiketatu behar diren artxiboak, edukiak eta informazioa, eta bakoitzak biltzeko bere estrategia du. Gordetako edo bildutako informazioa eta edukiak berreskuratu edo kudeatu ditzake.	Gutxienez irakasleen % 40ak badaki hainbat metodo eta tresna aplikatzen artxiboak, edukiak eta informazioa antolatzeko. Badaki hainbat estrategia aplikatzen berak edo beste batzuek antolatu eta gorde ditzuten edukiak berreskuratzeko.	Irakasleen % 60 baino gehiagok badaki hainbat metodo eta tresna aplikatzen artxiboak, edukiak eta informazioa antolatzeko. Badaki hainbat estrategia aplikatzen berak edo beste batzuek antolatu ditzuten edukiak berreskuratzeko.

GAITASUNA	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	5. MAILA
2. KOMUNIKAZIOA	TEKNOLOGIA BERRIEN BIDEZ ELKAR ERAGITE HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREKIN ETA LANKIDEEKIN				
	Irakasleen % 40 baino gutxiagok hezkuntza-komunitatearekin eta lankideekin komunika dezake komunikatzeko tresnen oinarritzko ezaugarriak erabilia (adibidez, telefono mugikorra, VoIP, txata, posta elektronikoa edo mezularitza).	Gutxinez irakasleen % 50ak tresna digitalak erabili ditzake hezkuntza-komunitatearekin eta lankideekin komunikatzeko horretarako tresnen ezaugarriak aurreratuenak erabilia (adibidez, telefono mugikorra, VoIP, txata, posta elektronikoa, mezularitza).	Gutxinez irakasleen % 50ak tresna digitalak erabili ditzake hezkuntza-komunitatearekin eta lankideekin komunikatzeko horretarako tresnen ezaugarriak aurreratuenak erabilia (adibidez, telefono mugikorra, VoIP, txata, posta elektronikoa, mezularitza).	Gutxinez irakasleen % 40ak online komunikatzeko tresna sorta zabala erabiltzen du (emailak, txatak, SMSak, berehalako mezularitza, blogak, mikroblogak, foroak, wikiak). Helburua eskuratzeko egokienak diren komunikatzeko modu digitalak aukeratu daki. Hartzaileren araber, komunikatzeko modua aldatzeko gai da. Jasotzen dituen komunikazio era ezberdinak kudeatzeko gai da.	Irakasleen % 60 baino gehiagok online komunikatzeko tresna sorta zabala erabiltzen du (emailak, txatak, SMSak, berehalako mezularitza, blogak, mikroblogak, foroak, wikiak). Helburua eskuratzeko egokienak diren komunikatzeko modu digitalak aukeratu daki. Hartzaileren araber, komunikatzeko modua aldatzeko gai da. Jasotzen dituen komunikazio era ezberdinak kudeatzeko gai da.
	INFORMAZIOA ETA EDUKIAK PARTEKATZEA HEZKUNTZA KOMUNITATEAREKIN ETA LANKIDEEKIN				
	Irakasleen % 30 baino gutxiagok badaki nola partekatzen diren artxiboak eta edukiak baliabide teknologiko soilen bidez (adibidez, posta elektronikoa bidez erantsitako artxiboak bidaltzea, Interneten argazkiak kargatzea, etab.)	Gutxinez irakasleen % 40ak badaki sare sozialetan eta online komunitateetan parte hartzen, ezagutzak, edukiak eta informazioa adierazteko edo partekatzeko.	Irakasleen % 60 baino gehiagok badaki sare sozialetan eta online komunitateetan parte hartzen, ezagutzak, edukiak eta informazioa adierazteko edo partekatzeko.	Gutxinez irakasleen % 30 gai da modu aktiboan informazioa, edukiak eta baliabideak online komunitateen, sareen eta kolaboratzeko plataformen bidez partekatzeko.	Irakasleen % 50 baino gehiago gai da modu aktiboan informazioa, edukiak eta baliabideak online komunitateen, sareen eta kolaboratzeko plataformen bidez partekatzeko.

GAITASUNA	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	5. MAILA
2. KOMUNIKAZIOA	IRAKASLE ROLETIK HERRITARREK ONLINE PARTE HARTZEA				
	<p>Irakasleen % 30 baino gutxiagok badaki teknologia zerbitzuekin aritzeko erabili daitekeela</p> <p>Adibidez: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila; aisialdiko eta kulturako guneak jarduera hezitzaileak egiteko, etab.)</p>	<p>Gutxienez irakasleen % 40 online zerbitzuak erabili ditzake</p> <p>Adibidez: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila; aisialdiko eta kulturako guneak jarduera hezitzaileak egiteko, etab.)</p>	<p>Irakasleen % 60 baino gehiagok online zerbitzuak erabili ditzake</p> <p>Adibidez: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila; aisialdiko eta kulturako guneak jarduera hezitzaileak egiteko, etab.)</p>	<p>Gutxienez irakasleen % 30 aktiboki parte hartzen du online guneetan. Badaki nola jardun online parte-hartzean eta hainbat online zerbitzu erabili ditzake.</p>	<p>Irakasleen % 50 baino gehiagok aktiboki parte hartzen du online guneetan. Badaki nola jardun online parte-hartzean eta hainbat online zerbitzu erabili ditzake.</p>
	KANAL DIGITALEN BIDEZ ELKARLANEAN ARITZEA				
